KARATEA: OÑATI HIRIA TXAPELKETA JOKATUKO DA ZAPATUAN /22

Goienka2a

EGUBAKOITZA • 2005eko apirilaren 15a • V. urtea • 195. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a

BLOGARIEN TOPAKETA EUSKAL HERRIKO LEHENA, ELGETAN

OÑATI

Egingo dituzte 1.216 etxebizitza berri, 505 babes ofizialekoak /13

PADRIG AN HABASK / BRETOIA

"Bretoierak ez du onarpen politikorik; estatistiketan ere ez dute kontuan hartzen" **/14**

ESKORIATZA

AP-1 autobideak kaltetutako taldeak errepidea itxi du /13

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005 /4-11

Joseba Egibar
EAJ
"Madrili aurre egiteko inoiz baino inportanteagoa da gehiengo abertzalea"

Arnaldo Otegi
BATASUNA
"Borondatea egonda, hilaren 18tik aurrera negoziazio prozesua hasiko da hemen"

Miguel Buen
PSE-EE
"Ez da posible gobernu itun bat EAJ eta PPrekin, jarrera erradikala dutelako"

Itziar Lamarain
PP
"Posible da PSE-EEren botoak eta gureak batuta EAJ-EArenak baino gehiago izatea"

Antton Karrera
EB
"Hiruko gobernuko alderdiak indartuta ateratzea eta PP jaistea nahi dut"

Aintzane Ezenarro
ARALAR
"Burujabetzan aurrera egin eta bakea lortzeko legealdia izango da hurrengoa"

Nekane Erauskin
EHAK
"Oraingoz, programa alde batera utzi dugu, demokrazia eta bakearen alde lan egiteko"

ASTEKO GAIA: GAUR, HILAK 15, ERABAKIKO DU MADRILEK HORREN GAINEAN

Jaurlaritzak dio Epele aurrera doala

Gaur, egubakoitza, da lantzekoa Espainiako Gobernua Epeleko araztegiaren gaia, eta Eusko Jaurlaritzak "konfiantza" osoa du azkenean proiekturako aurrekontu bat onartu egingo dutela eta egitasmoak aurreikusi bezala aurrera egingo duela.

Nahasmena izan da nagusi gai horren inguruan, Madrilek esan zuelako lan hori egiteko dirurik ez zeukala. Eusko Jaurlaritzak dioenez, ordea, dena "hauteskundeen atarian egindako maniobra" izan da. **/2-3**

Europako bosgarren etxetresnen enpresa da Fagor arrasatearra

Debagoieneko kooperatiba bat da Europako bosgarrena etxetresnen alorrean. Frantzian liderra den Brandt erosita, tamaina bikoiztu egin du Fagor Etxetresnak lantegiak, eta nazioartean indartu egin da. Fagorrek ia 2.000 milioi euro fakturatuko ditu aurten, 11.000 langile dauzka eta multinazional indartsua da; 100 herrialdetan hedatzera iritsiko da, 16 lantegi eta 12 markaren bitartez. Atzo eman zituzten aditzera Bilbon datu hauek Fagorreko buruek, Pablo Mongelos zuzendariak eta Jabier Gantxegi presidenteak. Mongelosen hitzetan, "inoiz baino indartsuago dago Fagor". **/12**

iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR

Hauteskundeak 'Asteleheneko Goienkaria'-n

Hauteskundeen emaitzak jasoko ditu *Asteleheneko Goienkaria*-k: Debagoieneko emaitzak, Autonomia Erkidegokoak, aurreko hauteskundeekiko aldeak, taulak eta grafikoak, iritziak, analisiak eta balorazioak, eguneko gorabeherak...

DEBAGOIENA/12 • HERRIZ HERRI/13 • IRITZIA/20-21 • KIROLA/22 • NON-ZER/24-25 • SAILKATUAK/26 • ESKELAK/27 • DENBORA-PASA/28 • TELEBISTA/30

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

Epelen, araztegia badoa aurrera

■ Madril gaur, egubakoitza, da "lanen hasiera" eztabaidatu eta erabakitzekoa

■ Azken egunotan Ministerioak egindakoak, "hauteskundeetako jokoa", Lakuaren ustez

LEIRE KORTABARRIA

Epeleko araztegia aurrera doa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, behintzat, hala uste du, Espainiako Gobernuak horren gaineko behin betiko erabakia hartzear dagoela. PSE alderdia ere iritzi horretakoa da. Gaur, egubakoitza, dira gai hori lantzekoak Ministro Kontseiluan. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, azken egunotan plazaratutako albisteak, araztegia egiteko dirurik ez zegoela esanaz, eta horren hariko eztabaida "hauteskunde giroan egindako maniobra" izan da.

Urak harrotuta ibili dira lanen inguruan, baina bere arrastora sartzen doaz. Martxo bukaeran piztu zen eztabaida. Espainiako Gobernua 1994an konprometitu zen Epeleko araztegia berak egitera, interes orokorreko lan bezala kalifikatu zuelako. Orain, egiten hasteko unea iritsi denean, Ingurumen Ministerioak esan zion Lakuari dirurik ez zegoela, eta hala jakinarazi zuen Iñaki Ezkurra Ingurumen Sailburuordeak. Joan diren egunotan, PSE alderdiak "gezurrak" esatea eta "iritzi publikoa manipulatzea" leporatu zion Jaurlaritzari. Ezker Batua-Berdeak alderdiak, bestetik, PSOEk bere konpromisoak ez betetzea salatu zuen.

Eusko Jaurlaritzak honakoa argitu nahi du: "Pozik gaude Epeleko araztegia egin egingo delako azkenean, baina hemen gezurrik ez du inork esan; Antonio Serrano Estatuko Uren Idazkariak esandakoak onartu ditu zenbait elkarrizketatan. Bestetik, EAEn beste hamar lan egitera konprometitu zen Espainiako Gobernua, eta jakin nahi dugu horiek egiteko beste hainbeste hauteskundeetara itxaron beharko dugun".

MUGA-URTEA, 2007.A

Espainiako Ministro Kontseiluak, dirudien bezala, Epeleko lanak onartzen baditu, bihar, zapatua, argitaratuko dute onartu dioten aurrekontua. Datu desberdinak eman dira honen inguruan, baina, Jaurlaritzaren arabera, aurrekontu hori 22,8 milioi eurokoa da. Estatuko Agerkari Ofizialean argitaratu beharko dute datu hori. Madrilek behin betiko lan hori onartzea oso garrantzitsua da, izan ere, hala ez egitekotan, gure ibarrak ezingo luke Deba ibaiaren garbiketa-sarea aurreikusitako eperako egin –2007. urtea–, eta Europako Batasunak agindutako epeak ez lirateke beteko, hortaz.

Eusko Jaurlaritzako bozeramaileen ustez, honako pausoak jarraituko dira: lehenengo, Espainiako Gobernuak diru partida bat onartuko du; gero, proiektuaren lizitazioa eta lana lehiaketara aterako dute eta "2007rako bukatuko dute", euren esanetan.

ERAKUNDEAK, HASERRE

Gai honen inguruan nahasmena izan da nagusi, baita erakundeetan ere. GOIENKARIA Ingurumen Ministerioarekin hartuemanetan jarrita, esan zuten gauza bakarra izan zen "Ministro Kontseiluak lanen hasiera eztabaidatuko" zuela egunotan. Madrilen menpe dagoen Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak, proiektuaren arduradun teknikoak, ere ez zuen Ministeriotik inongo argibiderik jaso: "Guri dagokigunez, proiektua aurrera doa eta lehengo epeak ditugu", esan zuten.

Azkenik, Foru Aldundia, lurrak desjabetzearen arduraduna, orain bi aste batzartu zen Ministerioarekin, eta hark esan zion "laster" lehiaketara aterako zutela proiektua. Izan ere, lur guztiak desjabetuta daude dagoeneko.

Aldundia ere haserre dago Madrilek erakutsitako jarrerarekin. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri AhaldunNagusia Arrasaten izan zen hilaren 11n, eta honakoa esan zuen: "Ingurumen Ministerioari dagokio obra hori egitea, eta inguruan Foru Aldundiak egin beharreko bigarren mailako lanak eginda daude". Gaineratu zuen atzerapen asko izan dituela dagoeneko lan horrek. Berak ere hauteskundeekin zerikusia zuen susmoa hartuta zegoen: "Espero dut hautes-

¿BANEK!

Zozketa
Uztaileko finaleko talde irabazleak PORT AVENTURAra bidaia zoragarri bat irabaziko du!

BANEKI
Debagoieneko gaztetxoen saioa

Astelehen eta eguenetan
21:00etan

Aurkezlea:
Mikel Aranburu

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

BANEKI Antolatzaileak: debagune Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Laguntzaileak:
Eroski Bidaiak, Bocatta, Florida eta Guridi, Ikastolen Elkartea.

Horrela doaz sareko lanak

Iaz geroztik, aurrerapen handiena Bergara, Mutriku eta Elgoibarko araztegien lanetan izan da. Kolektore sarea bukatzeko Eibar, Plazentzia eta Bergara aldeko zatiak falta dira. Kutsadura maila ez da aldatuko araztegiak lanean hasi arte.

DEBA
Araztegia eginda dago.

MUTRIKU
Proba fasean dago. Ekainerako gertu egotea espero du Foru Aldundiak.

ELGOIBAR
Apraitzen dihardute eraikitzen. Aldundia arduratzen da, eta 36 milioi euro ditu horretarako. Epe barruan dabiltza, eta espero da datorren urte hasieran bukatuta egotea.

BERGARA
Uztailean egin zituzten lan batzuk. Lurrak desjabetuta daude eta proiektua laster aterako dute lehiaketara. Asko jota, datorren urtean gertu egongo da. Antzuola, Bergara eta Elgetako kolektore sarearekin lotuko da. 11 milioiko aurrekontua du.

EPELE
22,8 milioi euroko aurrekontua du, Jaurlaritzaren datuen arabera. Seguruenik, epeen barne egingo du Madrilek.



ITURRIAK: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / OBRA HIDRAULIKO ETA HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA. EUSKO JAURLARITZA / LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA.

EGITEKE
EAEn zenbait konpromiso hartu zituen Madrilek

Epelekoa ez da Espainiako Gobernua EAEn egitera konprometitu eta oraindik egin ez duen lan bakarra. 468 milioi agindu zituen, eta 385 milioiko inbertsioa du egiteko. Honako lanak agindu zituen: Oria, Nerbioi eta Urdaibaiko saneamendu azpiegiturak; eta Arabako lautadako eta Aguraingo ur hornikuntza sareko lanak.

KUTSADURA
Zati batzuk garbiago egotea ez da konponbidea

Deba ibaia iaz bezain kutsatua dago. Zati batzuetan –Zubillagan eta Elorregin–, neurgailuek joan den uztailean baino maila hobeak ematen dituzte, kolektore gehienak funtzionatzen ari direlako; baina zikina lekuz aldatu besterik ez da egiten. Araztegiak behar-beharrezkoak dira, eta presazkoak.

ITXURA
Arrainak, ahateak... ez dira osasunaren adierazle

Deba ibaia garbi ikusteko denbora luzea behar bada, are luzeagoa beharko da bertara bizitza itzultzeko.

Izan ere, azkenaldian Deban arrainak, ahateak... ikusten dira, baina, biologoen esanetan, hori da ibaia hilda dagoen adierazle. Izan ere, espezie horiek kutsadurak erakarritako espezie exotikoak dira, ez behar luketen bertako espezieak.

kundeak bukatuaz bat lan hori egiteko moduan egotea".

Ezker Batua-Berdeek esan dute "gobernu sozialistak sineskortasun guztia galdu" duela, eta diru falta "zentzugabeko arrazoia" dela salatu zuen.

IBARREKO SAREA, ONDO

Deba ibaiko saneamendu sarea bukaera bidean jartzeko falta zen pieza zen Epeleko araztegia eta, izan ere, garrantzitsuenetako bat. Epelek jasoko ditu, izan ere, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza,

Eusko Jaurlaritza eta PSE ziur daude egingo duela Epeleko proiektua

Leintz Gatzaga, Aramaio eta Oñatiko kolektore sareak jasotako urak. Debagoieneko sareko beste funtsezko pieza Bergarako

Europaren epeak betez, ibaiaren saneamendu sarea 2007rako izango da gertu

araztegia da, Mekolalden; hori, ordea, Jaurlaritzak egin behar du, eta bide onetik doa: "Lurrak desjabetuta daude eta proiektua

Geratzen diren hiru araztegien eta kolektore sarearen lanak aurreikusi moduan doaz

negoziatuta dago; orain esleitu egingo da, eta 2006an bukatuko dira lanak", esan du Victoriano Gallastegi Bergarako alkate eta Gipuzkoako Ur Partzuergoko presidenteak. Mekolaldeko araztegiak Antzuola, Bergara eta Elgetako sareko urak jasoko ditu.

Kolektoreak ere ia gertu daude. Bergara, Antzuola eta Elgetako sarea laster bukatuko dutela azaldu du Gallastegik. Debabarreneko sarea hemengoa baino aurreratuago doa, izan ere, araztegi bat –Debakoa– bukatuta dago, eta Eibar eta Soraluzeko kolektoreak falta dira. Gauzak uste bezala badoaz, Europak markatutako epeak beteko dira.

Madrilen ohiko portaera

Zerbait agindu, gero hitza jateko: Eusko Jaurlaritzak dio aspalditik ezagun zaiola Madrilen ohitura hori. "Alderdi Popularrak etengabe egiten zuen hori. Orain PSOEk esan du PPk diru barik utzi zuela. Hala ere, sozialistak gobernuan zeudenean egindako transferentzia zen hau", dio Lakuak. Onartzen du ia 30 milioi euro "diru asko" dela Espainiako Gobernuarendako, baina "ziur" daude agindutako dirua ipiniko dutela, eta gogorarazten du 1994an "konpromiso serioa" hartu zela eta zenbait diru kupotik deskontatu zela.

Hori oso garrantzitsua da, izan ere, hasieran Madrilek beste finantzazio modu bat proposatu zuen: dirua aurreratzea eta Jaurlaritzak 30-40 urtean bueltatzeko, baina, azkenean, EAEko hiritarrek ordaindu behar izango zuketen, eta Jaurlaritzak ezezko borobila eman zion formula horri.

Aretz
taberna
"Oilasko erreak eta paellak eramateko"
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Enpresentzako %100-ean diruz lagundutako ikastaroak
Etengabeko formazio eredu berria
AKADEMIA
BASTIDA
• Kalitatea
• Ingurugiroa
• Laneko arriskuen prebentzioa
• Informatika
• Disenua
• Gestioa
• Hizkuntzak
• Giza baliabideak
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es
Baita zure enpresan bereziki egokitutako ikastaroak

EUSKO LEGEBILTZARRARERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

Debagoienean, 53.002 lagunek dute domekan botoa emateko aukera

Orain lau urteko hauteskundeen aldean, 1.000 hautesle gutxiago dago erroldan

GOIENKARIA

Debagoienean, 53.002 lagunek dute domekan botoa emateko aukera, orain dela lau urte (54.046) baino gutxiagok, eta azkeneko Europako Itunaren gaineko erreferendumean, otsailean egin zirenak, baino pitin bat gutxiagok (53.475).

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1.799.500 lagunek izango dute aukera botoa emateko. Orain dela lau urte 1.813.000 lagunek izan zuten, hortaz, oraingoan 13.500 gutxiagok izango dute aukera. Esan behar da, domekan bozkatzera deituak izan diren 1.799.500 lagunetatik, 1.761.235 lagun bizi direla autonomia erkidegoan, eta gainerako 38.235ak, kanpoan.

2.689 HAUTESKUNDE-MAHAI

Euskal Autonomia Erkidegoko 250 herritan banatuta dauden 725 hauteskunde-leku eta 2.689 hauteskunde-mahaietan eman ahal izango dute botoa hautesleek. Goizeko 9etatik iluntzeko 8ak arte izango dute bozkatzeko aukera.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1.799.500 lagunek izango dute botoa emateko aukera

800 HAUTAGAI

Guztira, 800 lagun aurkeztu dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara, banatuta 13 zerrendatan Bizkaian, eta hamaikana Gipuzkoan eta Araban. Denetako zerrendak daude, gainera.

Barne Sailak banatu ditu hauteskunde hauetarako 26 milioi hauteskunde txartel, 2,5 milioi kartazal, 33.000 eskuliburu hauteskunde-mahaietan egongo direnendako eta 2.000 hauteskunde egutegi.

EMAITZAK 22:30ERAKO

Barne Sailak aditzera eman duenez, domekan, 22:30erako emaitza guztiak jakingo ditugu. Lehenengo datuak, botoen %50 zenbatuta, 21:30ean jakingo ditugu. Horretarako, *www.elecciones.net* webgunea zabaldu du Eusko Jaurlaritzak.

Barne Sailak espero du 22:30erako emaitza guztiak eskaintzea 'Elecciones.net'-en

HAUTESKUNDEAK GOIENAN

Goienako hedabideek jarraipen berezia egingo diete hauteskundeei. GOITBk saioa eskainiko du zuzenean, 19:45ean hasita. Gorka Etxabek aurkeztuko du. GOITB-ko saioa Arrasate Irratiak ere emango du (FM 107.7).

www.goiena.net Debagoieneko Internet atarian ere momentuan ezagutu ahal izango dira emaitzak, eta arreta berezia eskainiko zaio Elgetan egingo den euskal blogarien bilkurari.

Asteleheneko Goienkaria-k, azkenik, luze eta zabal landuko du gaia eta ibarreko zein Euskadiko emaitzak argitaratuko ditu astelehenean, balorazio, iritzi eta eguneko gorabehera eta guzti.

Kanpaina, gurean

EAJ-EA, HEMEN ERABAKITZEAREN ALDE

EAJ-EAko ordezkariak astelehenean egon ziren ibarrean, Joseba Egibar Bergaran eta Rafael Uribarren Arrasaten. Propaganda banatu zuten kalean, alderdikideen laguntzaz, eta, iluntzean, hitzaldia egin zuen Egibarrek Bergaran. Esan zuen helburua dela PSE-EEk eta PPk baino legebiltzarkide gehiago ateratzea.

BATASUNEKOAK EHAK-RI BOTOA

Sasoi batean Euskal Herritarrok taldeko hautetsiak izan ziren hainbat debagoiendarrek EHAKri botoa ematea eskatu dute, eta eskubide demokratikoen aldeko manifestua eman dute ezagutzera. Bestalde, atzo Arnaldo Otegik hitzaldia egin zuen Arrasaten, eta gaur, egubakoitza, Joseba Alvarezek egingo du Bergarako plazan, 19:30ean.

SOZIALISTAK, KALEAN ARROSAK BANATZEN

Kalean arrosak banatzen ibili ziren martitzenean PSE-EEko hautagaiak: Blanca Roncal Arrasateko zinegotzia, Coral Rodriguez, Iñaki Dubreil… Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran ibili dira. Gaur goizean ere banatu dituzte Arrasateko azokan. Aldaketaren alde, Patxi Lopezi botoa ematea eskatu dute.

EZKER BATUAK, EGOITZA BERRIA ARRASATEN

Ezker Batua-Berdeak taldekoak Arrasaten eta Eskoriatzan egon ziren martitzenean propaganda banatzen; Eskoriatzan, HUHEZIko fakultatean ere egon ziren. Iluntzean, bestalde, egoitza berria inauguratu zuten Arrasaten, Iturriotz kalean. Han izan ziren Oskar Matute, Antton Karrera, Martin Calvo… Mondragoeko zinegotziekin batera.

ARALARREK, EUSKAL HERRI GORRI, BERDE ETA BIOLETA

Kanpanzarreko harrobiaren aurrealdera hurbildu ziren eguaztenean Aralarrekoak, eta aldarrikatu zuten Euskal Herri gorri, berdea eta bioleta, hau da, "Euskal Herri solidarioa, naturaren aldekoa, eta berdintasunean eta aniztasunean oinarritutakoa, eredu neoliberalen eta interes ekonomikoen aurka".

MAHAINGURUA GOIENA TELEBISTAN

Joseba Alvarez (Batasuna), Aintzane Ezenarro (Aralar), Antton Karrera (EB), Joseba Egibar (EAJ-EA) eta Nekane Erauskin (EHAK) GOITBk martitzenean egin zuen mahai inguruan egon ziren. Gorka Etxabek zuzendu zuen saioa, eta Elgetako Espaloian grabatu zuten. Han ziren ikus-entzuleek galderak egiteko aukera izan zuten.

JOSEBA EGIBAR / EAJ-EA

"Madrili aurre egiteko inoiz baino garrantzitsuagoa da gehiengo abertzalea"

MIRARI ALTUBE

Ahal duen guztia konbentzitzera joaten da hauteskunde kanpainan antolatzen diren foroetara, gustura joan ere. Oraingoan, negoziaketa prozesua abian jartzea dago jokoan Josebaren esanetan.

Ibarretxek dio: "Elkarrekin egingo dugu". Zer egingo dugu elkarrekin?

Herri nahiari bide eman behar badiogu, ezinbestekoa da bide hori elkarrekin egitea, benetan, eta ez testimonialki, arazoak eta oztopoak gainditzeko ahalmena eta gaitasuna duenaren eskutik. Gure ustez, koalizioaren eskutik

Zer dago jokoan apirilaren 17an?

Euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea oinarri harturik, Espainiako estatuarekin EAEko erakundeek negoziaketa prozesua abian ipintzea dago jokoan. PP eta PSE-EEk Legebiltzarrean EAJ-EAk baino eserleku bakar bat gehiago lortzen baldin badute, negoziaketa horrek tamaina handiko oztopoa izango du.

EAJ-EA koalizioak erabateko gehiengoa lortzen ez badu, norekin osatuko du gobernua?

Erabateko gehiengoa lortu ala ez, gure eredu politikoa hirukoarena da; beraz, etorkizunean ere hirukoaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu. Herri borondatearen errespetua eta bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko jarrera irmoari eusten diogun bakarrak gara Jaurlaritzari babesa eskaini diogun hiru alderdiok.

Datorren legegintzaldian herri galdeketa egingo dela diozue. ETAk segitzen badu ere bai?

Hasieratik esan dugu herri kontsulta bortizkeriarik gabeko egoeran eta inor baztertu gabe egin behar dela. Une hori iristen baldin bada eta ETAk kontsulta geldiaraztea erabakitzen baldin badu, orduan ezker abertzalearen egitasmo politikoaren amaiera izango dela iruditzen zait.

Batasuna legez kanpo, Aukera Guztiak ezin aurkeztuta... Hauteskunde ez demokratikoak dira?

Zorionez, badirudi EHAK aurkezteko moduan dela, eta, beraz, ezker abertzalearen lehen aukera izan ez bada ere, izango duela modurik hauteskunde hauetara "aurkezteko". Guk behin eta berriro salatu dugu Alderdien Legeak gurean sortu duen egoera ez-demokratikoa. Estatua urduri eta zalantzan badago ere, tresneri politiko-judiziala goitik behera kontrolatzen du. Beste aizkorakadaren bat emateko gaitasuna duela ere ezin uka genezake. Estrategia horri aurre egiteko, ezinbestekoa da behin eta berriz gehiengo demokratikoa eskuratzea eta erantzutea.

Emango diguzu arrazoi garbi bat oraindik botoa nori eman erabaki barik duena konbentzitzeko?

Gehiengo abertzalea inoiz baino garrantzitsuagoa da Madrilen estrategiari aurre egiteko. Hitz politekin datoz, gure gizartea loarazi nahian, baina, 2001ean bezalaxe, helburu nagusia Eusko Legebiltzarrean gehiengo ez-abertzalea lortzea dute, orain arte gure herriak eman dituen urrats demokratikoak geldiarazteko. Duela egun gutxi T5 telebistak bere aurkezle-izarretako bat Quebecera bidali zuen, bertako soberanisten kontrako irudia saldu nahian; horrelako erreportaje bat legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina erdi-erdian bota izana oso argigarria da Madrilen daukaten estrategia antzemateko.

PPk eta PSE-EEk baino eserleku gehiago lortuko ditu EAJ-EA koalizioak?

Hemen igarlerik ez dago. Nostradamus aspaldi hil zen, eta garrantzitsuena jokaldi politikoa ondo aztertu eta, ondoren, erabaki pertsonala hartzea bozkatzerako unean. Nik ez dakit PP eta PSOEk eserleku gehiago lortuko dituzten; garbi daukadana da Estatu estrategia guztia helburu horren atzetik dagoela. Madrilen arerio nagusiak Ibarretxe eta bere babes politiko eta sozialak dira, ondo baitakite Legebiltzarrean gehiengo abertzale batek elkarrizketa prozesu sakona behartuko duela, eta hori kontrolaezina dela eurentzat. Garbi ikusten dute, gainera, Ibarretxe dela prozesu horren lidergoa eraman dezakeen bakarra.



Joseba Egibar Artola EAJko Gipuzko Buru Batzarreko Lehendakari da. Euzkadi Buru Batzarreko kide eta EAJ-PNVren Legebiltzar Taldearen bozeramale izan da Legebiltzarrean azken legegintzaldian. 1959ko azaroaren 23an jaio zen Andoainen. 16 urte zituela EAJko eta EGIko kide egin zen. Hauteskunde hauetan zerrenda burua da Gipuzkoatik.

"Etorkizunean ere, hirukoaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu"

"Herri kontsulta bortizkeriarik gabeko egoeran egingo dugu"

"Madrilen arerioak Ibarretxe eta bere babes politiko eta sozialak dira"

Orain dela lau urte 600 mila boto lortu zituen koalizioak. Hauteskunde bereziak izan ziren, ordea, %80ko parte-hartzearekin. Apirilaren 17an muga hori gainditzea posible ikusten duzue?

Duela lau urte 604.222 boto lortu genituen. Hauetako bakoitzari proposamen hau egiten diogu: datozen urtetarako "bono" bat har dezaten gurekin. Hauteskundeetarako "sarrera" garrantzitsua da, baina datozen garaiak garrantzi handikoak dira; urrats garrantzitsuak eman ditzakegu, eta horretarako hiritar guzti horien babes jarraia ezinbestekoa dugu.

Zertarako balio dute hauteskunde kanpainek?

Mota honetako kanpainetan, jendeak uste duguna baino gehiago entzuten du. Duela lau urte hauteskunde kanpainak hiritarren zati handi baten botoa definitu zuen, eta oraingoan ETBn ospatu zen debatearen audientzia oso azpimarragarria izan zen.

Konpromisoak bete

Euskadirekin du konpromisoa EAJ-EAk. Etorkizuna erabakitzeko eskubidea dutela euskaldunek dio, eta datorren legealdian gizarteari kontsulta egiteko konpromisoa hartu du. Gainera, bermerik onena eskaintzen du: emandako hitza betetzea. Zeinek? Konfiantzazko buruzagiak, Ibarretxe lehendakariak, hain zuzen. Estatutu berriaren proposamena negoziatzeko konpromisoa hartu du, eta aldeen arteko elkarrizketa proposatzen du. Normalizazio politikoa, bakea eta adiskidetzea lortzea du helburu.

Konpromisoak hartu ditu: enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko; behartsuenak gizarteratzeko politika aktiboa garatzeko; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna egi bihurtzeko; gazteendako lana eta etxebizitza programak indartzeko; kultura eta euskara bultzatzeko. Azken lau urteotan Europan lehen bost herrialdeen artean kokatu garela hazkundeari dagokionean dio. Eta horretan jarraitu gura du EAJ-EAk Ibarretxe buru duela.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

EUSKO LEGEBILTZARRARERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

ARNALDO OTEGI / BATASUNA

“Hilaren 17ko gaua ezkerrekoak eta abertzaleak garenondako jaia izango da”

GOIENKARIA

Hauteskunde “oso garrantzitsu” batzuen atarian gaude, Batasunaren bozeramailearen iritziz. Alderdi horren ustez, inoiz ez bezalako aukera dago orain gatazka politikoa gainditzeko, EHAKri botoa emanda.

Hauteskundeok bereziak dira ala jarraipen soila?

Oso garrantzitsuak dira, borondatea badago beroien ondoren negoziazio prozesua hasiko delako eta jokoan dagoelako horko protagonistak zeintzuk izango diren. Bi eredu daude: Ibarretxek planteatzen duena, 77ko gauza bera errepikatzea, eta ezker abertzalearena, guztion arteko akordioa bideratzeko negoziazioa. Batasunaren egoerari irteerarik ematen ez zaion bitartean, arriskua dago negoziazioa PSE eta PPren esku uzteko eta akordioa euren artekoa bakarrik izateko.

Eman itzazu EHAKri botoa emateko arrazoi batzuk.

Funtsean, gauza izan direla, halako egoera antidemokratikoan, euren ideario politikoa albo batera uzteko eta herritarrei zerrenda legal bat eskaintzeko, apirilaren 18tik aurrera guztion arteko elkarrizketa eta negoziazio prozesua hasteko eta Anoetako proposamenari bultzada emateko.

Baina horrek ez du Batasunaren egoera konpontzen...

EHAKren aldeko bozka eskatzeak ez du esan nahi hauteskundeok demokratiko bihurtzen direnik, Batasunak ez dituelako aitortuak bere eskubide guztiak; baina egia da ere, urte luzez, Batasunak aurre egin diola legez kanpoko egoera horri, gainditu egin duela. Orain, hauteskunde hauetan dagoen gertakaririk inportanteena, politikoki, da Batasunak zerrenda legal baten aldeko apustua egiten duela, zerrenda horrek konpromisoak hartu dituelako guk bultzatzen ditugun gauzekin. Horrenbestez, egoera antidemokratikoak jarraitu egiten badu ere, hari aurre egiteko tresna eraginkor bat dugu.

Zeintzuk izan beharko lukete gobernu berriaren lehentasunak?

Batzuek esaten dute gehiengo abertzalea osatu behar dela; beste batzuek diote gehiengo konstituzionalista osatu behar dela; bada, guk diogu gehiengo demokratiko, plural eta askotarikoa osatu behar dela, gatazka gainditzeko eta bakea eta demokrazia ekartzeko. Horrek erantzuten dio herriaren nahiari.

“Ezkerretik erabaki”, “hemengo ezkerra”... Halako esloganak ikusi ditugu. Ezkerra sakabanatuegi dago?

Beti esaten da ezkerra askotarikoa dela, eta beste batzuek esaten dute ezkerraren aniztasun horrek ahalbidetzen duela espresio eskubidearen garaipena. Euskal Herri osoa kontziente da gauza batez, eta da herri honetan, egunen batean, alternatiba eraginkorra eraikitzen bada ezkerretik, alternatiba hori Batasunetik etorriko dela. Etorkizunean, eszenatokia aldatzen bada, herri honetako ezkerra Batasunetik eta ezker abertzaletik eraikiko da.

Zein emaitza izango dute EHAK-k eta Batasunak?

Sorpresa oso emankorra izango da 17ko gaua, ezker abertzaleak berriz frogatuko duelako zein den bere atxikimenduaren maila. Gau horretako ezustea EHAK-k emango du; alde batetik, jendeak ulertzen du Madrili benetan mina eta beldurra ematen dion botoa non dagoen, eta, bestetik, herriak nahi duelako gatazka gainditzeko akordioa, EHAK-k defenditzen duena. Ezkerrekoak eta abertzaleak garenondako jaia izango da gau hori.

Gerry Adamsek IRAri eskatu dio armak uzteko, eta zenbaitek diote zuk gauza bera egin beharko zenukeela. Bestetik, Alec Reid apaizak iragarri egin du ETAren su-etena. Zer diozu?

Irlandako kasua ezjakintasunez edo fede txarrez erabiltzen dute hemen askok guri eraso egiteko. Anoetatik hona gauza asko aldatu dira, eta, bide horretatik jarraitzen badugu, ez da beharrezkoa izango ETAri ezer eskatzea, ETAk horrelako prozesu baten buru-belarri sartzeko borondatea argi agertu duelako. Baina halako eszenatoki bat posible izateko, lan egin behar da, eta, horretarako, ezker abertzale indartsua izatea behar bat da.

Batzuek diote Euskal Herriko beste arazo batzuk debate politikoak guztiz estaltzen dituela. Ados?

Egia da beharrezkoa dela ezker-eskuin eztabaida egitea. Euskal Herriak arazo dezente ditu: behin-behinekotasuna, langabezia, egiten diren proiektu erraldoiak, ustelkeria... Hori ez da eztabaidatzen beste herrialde batzuetan adina, gatazka politikoak guztia hartzen duelako.

Batasunaren helburu bat da Estatututik beste eredu batera pasatzea. Legegintzaldi honetan gertatuko da hori?

Legegintzaldi hau oso garrantzitsua da, eta, gauzak txukun eta serio eta, batez ere, borondate onarekin egiten badira, eta ezker abertzale indartsua badago, bakea, demokrazia eta justizia lortzeko itxaropena du herri honek.

Arnaldo Otegi Mondragon Batasuneko bozeramailea da. 1998ko otsailean Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko bozeramaile aukeratu zuten eta orduan hasi zen euskal politikan ezagun egiten, baina 90eko hamarkada erdialdea ezkero zegoen Legebiltzarrean. Azken legegintzaldian, Sozialista Abertzaleen bozeramailea da. Elgoibarren jaio zen, 1958ko uztailaren 6an. Filosofia eta Letrak ikasi ditu.

Ezohiko kanpaina

Bere egoera ezohikoa denez, kanpaina ere ezohikoa egin du Batasunak. Nahiz eta hauteskundeetara aurkezterik ez duen, kanpaina hori aurrera eramaten saiatu da Batasuna. Batez ere joan den egubakoitzetik, hilak 8, Batasunaren kanpaina oinarritu da EHAKren aldeko botoa eskatzen.

Bere mezuak plazaratzeko zailtasun handiak izan dituen arren, Batasuna bere buruaz ziur dago, eta baita bere jarraitzaileez ere: “Gure botoak baliogabeak zirenean ere, gure oinarriari eutsi diogu: orduan ere, 100.000 bototik gora izan genituen. Une honetan, zerrenda legal baten aldeko bozka eskatzen dugu eta ez da inondik inora boto ihesaldirik egongo”, dio Arnaldo Otegi bozeramaileak.

Horrez gain, bere nortasun zeinuak berretsi ditu Batasunak kanpaina honetan: “EAJren ereduari alternatiba bat badago, aurrerakoia, ezkerrekoa, sozialista eta herriaren interesak alderdien gainetik ipintzen dituena, eta hori da guk bultzatzen duguna”, dio Otegik.

“Egoera antidemokratikoari aurre egiteko tresna eraginkorra dugu”

“Herri honetako ezkerra Batasunetik, ezker abertzaletik, eraikiko da”

“Borondatea egonda, hilaren 18tik aurrera negoziazio prozesua hasiko da”

MIGUEL BUEN / PSE-EE

"Ez da posible gobernu itun bat EAJ eta PPrekin, jarrera erradikala dutelako"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Errenteriako alkate lanak albora utzi gabe, hauteskunde kanpainan buru-belarri jardun du Miguel Buenek. Domekarako ez ezik, hauteskunde osterako dituen asmoen berri ere eman digu PSE-EEko Gipuzkoako zerrendaburuak.

Zer dago jokoan domekako hauteskundeetan?

Gobernu aldaketarako aukera dago jokoan; aurkakotasunaren eta nazionalisten babesaren bila ibili den hiruko gobernuak egindakoari buelta emango dion eta denekin hitz egiteko prest dagoen gobernua. Bestalde, jokoan dago, osaketari dagokionez ezberdina den gobernu batek, ikuspegi aurrerakoi batetik, aurre egitea herritarren eguneroko arazoei. Gauzak hobetu daitezke baliabide ekonomikoak egoki kudeatuz gero.

EAJrekin izan zineten gobernuan. Egun, euren gauza batzuk kritikatzen dituzue.

Etxebizitzen gaineko legea hasi genuen. Honek eragin du urbanizatu daitezkeen lurretako etxebizitzen %65 legez babes ofizialekoa izatea. Osasun arloa arautu genuen, baina osasun publikoa bide okerra hartzen ari da. Hezkuntza ituna egin genuen Euskal Herriko hezkuntza sistema arautzeko; garai batean funtzionatu arren, orain hezkuntza kontseilaria nahasten ari da. Horren adibide da eskola publikoetan ez duela 0 eta 3 urte bitarteko matrikula irekitzen laga, pribatuetan baizik.

Patxi Lopezek esan du apirilaren 17tik aurrera herritarrekin egingo duela ituna. Zer esan nahi du horrekin?

Herritarrei entzungo diela. Lehenengo, botoekin esaten dutena entzungo du, eta gobernatzeko orduan ere kasu egingo die. Era berean esan du gaur egun ez dela posible gobernu itun bat EAJrekin eta PPrekin, jarrera erradikala dutelako. Zenbakiak?, galdetzen du askok, baina Madrilen gehiengorik gabe gobernatzen dugu, eta baita zenbait udaletan ere. Hala ere, gehiengo absolutua beharko luketen garrantzi handiko gaiak aurrera atera ditugu negoziatzeko trabarik ipini gabe, kontuan hartuta denok izan dezakegula arrazoiaren parte bat.

Sozialistok baduzue aukerarik gobernatzeko eta Ibarretxe oposiziora bidaltzeko?

Zergatik ez? Herrialde demokratiko batean gaudela egiaztatzeko egon behar da aldaketarako aukera.

Prest egongo zinatekete PPrekin ituna egiteko horrekin lehendakaritza lortuko bazenute?

Lehendakaritza ez da dena. Zergatik lehendakari edo alkate izan? Izena edukitze soilagatik? Horrek ez du merezi. Ezin da lehendakaritzan egon beste alderdi baten mendean; are gutxiago norberak sinesten ez dituen politikak inposatuz gero.

Nola baloratzen duzu Aukera Guztiak alderdiaren zerrendak baliogabetzea?

Legeak, zuzenbide estatua eta botere banaketa argia daude. Tribunalek ikusi badute zerrenda hauetan Batasunaren jarraipen argia dagoela, alderdi gisa legez kanpo dagoenez, nik ez dut ezer askorik esateko honen gainean. Dena dela, aurreko ebazpenean hauteskundeetara aurkezteko baldintza bat ipini zuen auzitegi konstituzionalak: terrorismoa gaitzestea, eta ez dute bete.

Gipuzkoako zerrendaburua izateaz gain, Miguel Buen Lacambra PSE-EEko Gipuzkoako idazkari nagusia da, baita Errenteriako alkatea 1987tik. Azken bi legealdietan Euskal Sozialistak taldeko ordezkaria izan da Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gazteria eta Kirol saileko zuzendari nagusia izan zen Foru Aldundian; Pasaiako portuko presidente kargua ere izan du; eta Euskal Herriko udalen elkarteko batzordeko kide da.

Euskadi denondako

Euskadi denona izatea eta denondako Euskadi lortzea da PSE-EEren asmoa. Horregatik, PSEren aldeko botoa eskatuko dute "aldaketa politika baten bidez Euskadik aurrera egin dezan herrialde eta gizarte moduan". Hori dela eta honako lau gaiok azpimarratu dituzte euren programatik:

- Euskadi denona eta denondako izan dadin herritar guztion arteko akordioa beharrezkotzat jotzen dugu terrorismoa desagertu dadin.

- Bestalde, etxebizitzaren arloan política gogorra egiten saiatuko gara. Hau da, gaiarekin zerikusia duten gainontzeko erakundeekin eta gizarte eragileekin lan egingo dugu etxebizitzaren arazoari aurre egiteko.

- Gainera, nekatu artean lan egingo dugu indarrak enpresariekin eta langileekin batuz enpleguari egonkortasuna emateko.

- Hezkuntzaren alorrean, azkenik, Euskal estola publikoaren aldeko apustu garbia egingo dugu.

Alderdi sozialistak ezker abertzalearekin elkarrizketarako bidea ireki beharko luke?

Ezker abertzaleak terrorismoa kondenatzen badu, alderdi sozialista hitz egiteko prest egongo da. Gobernuko presidente eta PSOEko idazkari nagusiak publikoki esan du hori, gainera.

Gipuzkoako hainbat herritan gehiengoa nazionalista da. Zer egin behar luke PSEk boto gehiago eskuratzeko?

Nazionalistak dira, besteak beste, terrorismoarengatik herri txiki askotan ezin dugulako gure aukera azaldu. Baina gure kandidaturak aurkeztu ditugun tokietan, Bergaran, esaterako, hauteskunde orokorretan 1.000 boto baino gehiago lortu genituen, eta horrek zerbait esan nahi du. PSEk zaila luke herri horietan boto gehiago eskuratzea. Gainontzeko alderdiak dira zerbait egin behar luketenak guk gure aukera askatasunez azal dezagun edozein herritan.

"Ezin da lehendakaritzan egon beste alderdi baten mendean"

"Ezker abertzaleak terrorismoa kondenatuz gero, hitz egiteko prest gaude"

"PSE gorantz doala dirudi, baina botoak zenbatu artean ezin da ezer esan"

Zein emaitza espero ditu zuen alderdiak?

Ez naiz ausartzen zenbat boto eta zenbat eserleku lortuko ditugun esatera. PSE gorantz doala dirudi, baina boto guztiak zenbatu artean ezin da ezer esan.

Nola pasatzen duzue politikariok hausnarketa eguna?

Nik neuk bi bikote ezkonduko ditut; ondoren, herrian txistulariei ongietorria egingo diet; eta gero, erretiratu talde batekin joango naiz bazkaltzera.

Gustatuko litzaizuke Aita Santuaren hiletara joatea?

Katolikoa eta praktikantea naiz, baina ez nintzateke joango. Aita Santuaren irudia, erlijioaz gaindi, politikoki ere garrantzitsua izan da, baina gogoratu eta goraipatu daiteke Erromara joan gabe. Elizak alderdi interesgarri asko ditu baina badira beste zenbait hainbat katolikorendako inolako garrantzirik ez dutenak. Ni neu, esaterako, ez naiz horrelako parafernalien zalea.

EUSKO LEGEBILTZARRARERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

ITZIAR LAMARAIN / PP-KO HAUTAGAIA

"Posible da PSE-EEren botoak eta gureak batuta EAJ-EArenak baino gehiago izatea"

ENEKO AZKARATE

PPko hautagai Itziar Lamarain Gernikako Estatutuaren defendatzaile sutsua da, "herritarrak zatitu besterik egiten ez duten planen aurrean", eta lehendakarigai bikaina dutela uste du, San Gilek "hitza betetzen duelako".

Zein da euskaldunok daukagun arazorik nagusia?

Euskal gatazkaz egiten da berba, baina daukagun arazo bakarra da talde terrorista bat daukagula hil egiten duena.

Uste duzu, Zapaterok esan berri duen moduan, Lopezek irabazten badu, bakea gertuago izango dugula?

Ez, hori sinesgaitza da, ze Suarezek, Gonzalezek edo Aznarrek makilatxo magikoa izan balute, konponduta legoke arazoa. Zapaterok esandakoa gogorra, larria eta injustua da, eta hiritarrak engainatzea besterik ez da hori.

PPk eta PSE-EEk EAJ-EA koalizioa gobernutik kentzeko aukerak badituztela uste duzu?

Bideragarria da gure botoak eta sozialistenak batuta EAJ-EArenak baino gehiago izatea. Orain dela lau urte ez ginen hain urruti egon. Erroma ez zen egun batean irabazi. Zoritxarrez herri hau nazionalista diren eta ez direnen artean dago zatituta. Eta denok daukagu eskubidea herri honetan bizitzeko eta aginte organoetan egoteko. Non dago idatzita herri honetako agintariek nazionalistak izan behar dutela?

Jokoan dagoena da nork jasotzen dituen boto gehiago, PPk edo PSE-EEk, eta badirudi sozialistak doazela aurretik.

Inkestek horixe diote, baina nik ez ditut aintzat hartzen, gehienek ez dutelako asmatzen. Ikusi besterik ez dago Europako Itunaren gaineko erreferendumean parte-hartzearen gainean inkestek ziotena eta gero benetan gertatu zena. Guk lehendakari bikaina daukagu eta goraka goaz.

Patxi Lopezek esan du bera lehendakari ez den gobernu batean ez duela parte hartuko.

Oso ondo, baina hori ikusi egin beharko dugu. Nik, hala ere, ikusten ditut sozialistak botere gosearekin, eta ikusi beharko da, Ibarretxeri interesatzen bazaio eta sozialistei eskaintza egiten badiote, haiek zer erantzuten duten. Maria San Gilek esan du prest dagoela lehendakariorde izateko Lopezekin. Hark, ostera, ez du ezer esaten, esaten du hiritarrekin egingo duela koalizioa eta hori esatea eta ezer ez esatea berdina da. Ez daukat hain garbi San Gilek lehendakari izateko aukera baldin badauka sozialistek laguntza emango dioten edo ez.

Estatutu berria aurkeztu du EAJ-EAk eta estatutua berritzea proposatu du PSE-EEk. PPk, zer?

Gernikako Autonomia Estatutuak 25 urte bete ditu eta boto emaileen %80k onartu zuten hura. Gu horren alde gaude. EAJk eta EAk, ostera, 1998an ETArekin egin zuten ituna, baina hura ez zen ondo atera eta Ibarretxe Plana asmatu dute Batasunekoen babesa jasotzeko. Baina plan horrek herria zatitu besterik ez du egiten. Ez da irtenbidea. Sozialistena, berriz, zerbait egin behar izan eta Gebara jaunak egindako erdibideko plana da, baina Gebara abertzalea da eta denak pozik uztea helburu duen nahasketa egin du. Hiritarren premiak ez dira plan horiek.

PPko zinegotzia eta bozeramailea da Arrasateko Udalean. 59 urte ditu. Mondragoetarra da, baina 30 urte zituenean Gasteizera joan zen bizitzera. Aita elgetarra eta ama Elorriokoa zituen. Urteak daramatza PPrako lanean, "Buesa hil zutenetik", dio. EAJkoa izandakoa da, "demokrata-kristau nintzen heinean". Euskaldun zaharra izan arren, elkarrizketa espainolez egitea eskatu digu. Astean lau orduz dihardu euskara ikasten.

Denondako lehendakaria

Azken 25 urteotan izan ditugun lehendakari abertzaleen aurrean, benetako eta egiazko alternatiba izan nahi du PPk, eta baten eta bestearen planen aurrean, irtenbideak planteatzen dituztela dio "denontzako izan nahi duen lehendakarigaiak". Hauteskunde programari dagokionez, berriz, hona hemen ardatz nagusiak: gazteendako etxebizitza duin eta eskuragarriak; INEM bulegoaren transferentzia eskatzea; Kontzertu Ekonomikoaren babesa; erreforma fiskalak egingo dituzte enpresen lehiakortasuna bultzatzeko; bakean hezteko eskola; testuliburu dohainekoak; hizkuntza eredu guztiak aukeran; familiari laguntzeko Institutua sortuko dute eta Familia Ugarien legea egingo dute; zaharren pentsioak bermatuko dituzte; urtean 2.400 euroko laguntza jasoko dute emakumeek, hiru urteko ume bakoitzeko; *Euskal Y*-ari bultzada emango diote; Euskal Portuen Legea egingo dute; energia berriztagarriak erabiltzeko konpromisoak egin eta egitasmoak abiaraziko dituzte...

Zeintzuk dira behar horiek?

Etxebizitza, ongizate gizarteari dagozkion arazoei irtenbidea ematea, zaharrendako erresidentziak, kalitatezko hezkuntza, lurraren plan egokia, diru arazoendako konponbideak.

Euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea badaukagu?

Botoa emateko eskubidea daukadanetik erabakitzen dihardut nire etorkizuna. Horrek balio du, ez beste erreferendumik.

Batasuna legez kanporatua dago, Aukera Guztiak taldeari ez diote uzten parte hartzen... Demokratikoak dira hauteskundeak?

Horregatik demokratikoak ez badira, zer esango dugu botoa ematera lagunduta joan behar dugunok? Hauteskunde hauek demokratikoak dira. Egia da Batasuna legez kanpo dagoela, baina hori da horrela epaileek ETArekin lotu dutelako; Aukera Guztiak taldearen parte-hartzearen gainean ere epaileek erabaki dute.

"Gernikako Estatutuaren alde gaude; boto emaileen %80k onartu zuten"

"Non dago idatzita hemengo agintariek nazionalistak izan behar dutela?"

"San Gil, gure lehendakarigaia, da egia esaten duen bakarra"

Eta EHAK alderdiaren parte-hartzearen gainean zer iritzi daukazu?

Epaileek ezer esaten ez badute, aurrera. Haiek erabaki behar dute. Nik sinesten dut justizian.

Emango diguzu arrazoi bakar bat PPri boroa emateko?

San Gil, gure lehendakarigaia, da egia esaten duen bakarra, fidatzekoa da; besteak ez.

Zerbaiterako balio dute hauteskunde kanpainek?

Txarrena da dirutza handia gastatzen dela, baina uste dut ez dagoela beste biderik hiritarrengana heltzeko. Hala ere, hauteskunde guztiak egun berean egitekoaren aldekoa naiz, hautestontzi asko jarriaz.

Joan Paulo II.ak egin duen lanaren gainean zer esango zeniguke?

Jende askorengana heldu den Elizaren zuzendari bikaina izan dela uste dut.

ANTTON KARRERA / EZKER BATUA

"Akordioa egiteko prest gaude ezkerreko gaiak gobernuan sartzen jarraitzeko"

LEIRE KORTABARRIA

Antton Karrerari ez litzaioke gaizki irudituko kanpaina motzagoa balitz, astebetekoa bakarrik. Ezker Batua subiranoa eta bere estatutuak eta bere burujabetasuna dituen erakundea dela gogoratu du han eta hemen, Ezker Batuaren irudi berriaren azpitik.

Batzuek EB hizkien irudi berrian 68 ikusi dute.

Egia da 68ren zentzua baduela. Baina beste aldetik, EB hizkiak beste erakunde batzuek ere badute, Europako Batasunak, esaterako, eta irudi horietatik aldendu gura izan dugu. Azkenean, arrazoi guztiak nahastu ditugu eta hauxe izan da emaitza. Irudiak mezu luzeak edo zabalak hartu gura izaten ditu, batzuetan lortzen dute eta ez dakit honek egingo duen.

Izquierda Unida hitzak ez dira ageri, kendu egin dituzue.

Guri botoa emateko botopaperaren azpian agertuko da Izquierda Unida, jendea nahas ez dadin, baina aurrerantzean ez da agertuko gure irudian.

Zer dago jokoan hauteskunde hauetan?

Asko dago jokoan. Adibidez: bakea, herriaren normaltasuna lortzea, mehatxurik gabe eta ideia guztiak errespetatuta politika egiteko bidea zabaltzea, herriaren gehiengoak erabakitzen duena errespetatzea eta hori aurrera eramateko gaitasuna edukitzea edo ez, eta baita ezkerreko politika egitea, politika solidarioago batez, gazteen eta gehien behar dutenen interesak defendatzea.

Zer emaitza espero dituzu?

Herri honetan ez dira aldaketa handi-handiak gertatzen. Hemen hautesleek botoa ondo pentsatuta ematen dute. Baina tendentziak egongo direla uste dut. Iruditzen zait orain arte gobernuan egon garenok indartuta aterako garela eta Alderdi Popularra jaitsi egingo dela; hori espero dut.

Ibarretxek dio *Elkarrekin egingo dugu*. Baina norekin? EAJk eta EAk bakarrik? EBrekin ere bai?

Interpretazio asko egon daitezke. Nik uste dut emaitzak ikusi ondoren erabakiko dela hori.

Historian zehar egon diren gehiengo absolutu guztiek emaitza txarrak eman dituzte gobernu guztietan eta uste dut herri honetarako ere ez dela ona. Bestela, eta hipotesiekin hitz eginda, gehiengo absolutua lortzen badute azken lau urteotan gobernuan egon direnek, gu prest egongo gara akordio zabala egiteko, posible bada ezkerreko gaiak gobernuan sartzen jarraitzea.

Nori eskatzen diozue botoa?

Herri osoari, baina batez ere guri jende gazteak ematen digu.

Guk botoa eskatzen diogu jende gazteari, ezkerrekoari, gizarte hau solidarioagoa egin nahi duenari. Herri honetan gauza asko egin dira, baina oraindik zeregin izugarria dago egiteko, batez ere lan baldintzetan eta etxebizitzaren gainean. Lan kontratazioak hain baldintza larrietan egiten jarraitzea gazteak esplotatzea eta etorkizun iluna jartzea da, eta gazteek euren etxeetatik ateratzeko ere lan handia egin behar dugu oraindik. Berdin gertatzen da gizarte ongizatean, eta irakaskuntza eta osasun publikoa guztiondako eskatzeko orduan ere, adibidez.

Orain arte izan duzuen *kartera* ikusita, hurrengo gobernualdian ere hori bera hartuko zenukete ala izan liteke ekonomiakoa, adibidez?

Hori orain esatea oso zaila da. Azken finean, uztartu egin behar dira dauden posibilitateak eta gure nahiak. Guk ez dugu arazorik orain arteko gaiekin zein ekonomiakoekin, enpleguarekin edo emakumearen eta gizonaren arteko berdintasunarekin lan egiteko. Orain onartu dugu lege bat emakumearen berdintasunaren aldekoa eta eskatzen dugu sail bat hori aurrera ateratzeko, horretarako departamentu berezi bat.

Zer iruditzen zaizu Espainiako gobernuak jarri nahi duen lan kontratu berria?

Lehengo mugagabeko kontratuen ziurtasuna galtzea esan nahi du, eta atzerapausoa dela uste dut, aurrepausoa baino.

Zeri eman behar dio lehentasuna hurrengo gobernuak?

Bakea lortzea eta politikan bizitza normaltasunez egitea oso garrantzitsua da eta aintzat hartu behar dira. Baita gazteak, baztertuak, gizarteko ongizateko arazoak, emakumearen presentzia eta herriari galdeketa egitea ere, eta horrek esaten duena errespetaraztea Espainiako gobernuari, besteak beste.

Zerbait aldatuko da apirilaren 18tik aurrera?

Bai. Duela lau urte baino krispazio txikiagoa dagoela uste dut, eta hori positiboa da. Oraindik ez ditugu arazoak gainditu eta datozen lau urteak oso garrantzitsuak izango dira guztiondako.

Nola oroitzen dituzu Arrasaten lanean ibilitako urteak?

1968an Euskadiko Kutxan aritu nintzen teknikari bezala eta Lana kooperatiban kontratatu ninduten lanerako. Eskualdeko bazterrak, baserri gehienak eta baserritar asko ezagutzen ditut. Hantxe hasi ginen behien tuberkulosiaren kontrako kanpainak eta kontrolak egiten. Aitzindariak izan ginen.

Antton Karrera Agirrebarrena Amezketan jaio zen. Aurten 62 urte egingo ditu. Nekazari Ingeniaria da eta Arrasateko kooperatiban lanean ari zen sasoian atxilotu egin zuten Bergaran, eta Burgosko Prozesuan epaitu gero. 1994an afiliatu zen Ezker Batura. Azken lau urteotan izan da legebiltzarkidea Gasteizen, lehenago Donostiako Udalean egon zen zinegotzi. 25 urte egin ditu Fraisoron, horietatik 16 zuzendari.

Gehiago, handiagoa

Betiko koloreekin baina irudi berriarekin egin du kanpaina Ezker Batua alderdiak. Seigarren biltzarrean erabaki zuten estatutu berria, izen berria eta irudi berria egitea eta erabakia hauteskundeetan erakutsi dute.

Azken lau urteotan EAJ eta EArekin batera osatu du gobernua eta datozen lau urteotan ere gobernuan egoteko prest dago, gobernu berriak ezkerreko politika egiten jarraitzeko bidea ematen badu. Prest dago badakielako gauza batzuk egin diren arren oraindik zeregin asko dagoelako: lan baldintzak larriak direlako, gazteek etxebizitza lortzeko arazoak dituztelako, oreka ekologikoa eta garapen iraunkorra indartu behar direlako eta zentral termikorik eta errauskailurik egin nahi ez dutelako, besteak beste.

Ezker Batuak uste du elkarrizketa gehiagok bake gehiago ekarriko duela, autogobernu handiagoak gizarte politika gehiago, zerbitzu publiko gehiagok berdintasun handiagoa eta demokrazia hobeak, askatasun handiagoa.

"Gobernuko alderdiak indartuta ateratzea eta PP jaistea espero dut"

"Asko dago jokoan, eta asko egiteko datorren gobernualdian"

"Gehiengo absolutua beti izan da txarra, eta herri honetarako ere ez da ona"

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

EUSKO LEGEBILTZARRARERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

AINTZANE EZENARRO / ARALAR

"Legealdi hau izango da bakea lortzeko eta burujabetzan aurrera egiteko legealdia"

MIRARI ALTUBE

Mezua ona izanez gero, mezulariak ez duela halako garrantzirik dio Aintzanek, "eta Aralarren mezua oso ona da". Legebiltzarrean ezker abertzale eraginkorra izateko gertu dago.

Aro berri baten aurrean gaude?

Hauteskundeak eta gero ziklo politiko berri baten sartuko gara, negoziazio politiko berri bat irekiko da. Gernikako Estatutua nolabait gainditutzat eman da, eta orain badirudi bigarren negoziazio bat emango dela. Horretarako bi elementu objektibo daude: alderdi sozialista prest agertu da estatutuaren inguruan eztabaidatzeko eta, honekin batera, Batasuna, eta ETA bera ere bai, prest agertu dira behingoan bide politiko soiletatik abiatzeko. Honek garai berri baten gaudela adierazten du. Legealdi hau izango da bakea lortzeko eta burujabetzan aurrera egiteko legealdia.

Zuk esan zenuen: "Jokoan bakea eta erabakitzeko eskubidea daude". EHAKk "bakea eta demokrazia" dio. Ez dira berdinak?

Bakea lortzeko behar-beharrezkoa da ETAk suetena ematea; ezin da bakeaz hitz egin ETAz hitz egin gabe herri honetan. Estatuari eskatu behar zaio behingoan utz ditzala tentsionamendu politikak: presoen dispertsioa utz dezala eta inkomunikazioa gainditu. Alderdien Legea ere alde batera utz dezala. Orain jokoan dagoena da ea marko berri honek erabakitzeko eskubidea jasoko duen. Horregatik, bide politiko soiletatik arituko den ezker abertzalea indartzea beharrezkoa da, eta bestetik, hirukoaren aurrean akuilu lanak egingo dituen ezker abertzalea behar da.

Gerry Adamsek IRAri egindako deiak aldatuko ditu gauzak Euskal Herrian?

Beste elementu bat da, baina Euskal Herrian gauzak aldatzen hasita daude. Aralar beraren sorrera akuilu garrantzitsua izan zen aldaketaren norabidean. EHk bere garaian egin zuen apustua bide politiko soilen aldeko apustua izan zen. Hura ETAk apurtu zuen, eta Aralar eta AB izan ziren apustuari eutsi zioten bakarrak, ez Batasuna.

Ezker abertzale bat baino gehiago dago?

Ezker abertzalea ulertzeko bi modu daude. Bata da ezker abertzale zibila eta zabala, Aralarrek proposatzen duena, benetan gizartearen aniztasuna onartzen duena. Eta besteek nahiz eta esan eskubide zibilen eta politikoen alde daudela, nik dakidana da besteen kartelen gainetik eurenak jartzen dabiltzala. Aralarrek ez du nahi besteen aukerak zapaltzen dituen ezker abertzalerik.

Gureak badu konponbidea?

Bai, bi oinarritan jarri behar dugu ados: humanoan eta politikoan. Ea onartzen dugun, behingoz, pertsona guztiok berdintasunean bizitzeko eskubidea dugula, eta, bestetik, berdintasuna proiektu politikoak garatzerakoan. Ez da kabitzen ilegalizaziorik, baina ezta herri honek erabakitzen duenari mugarik jartzea ere. Horregatik Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea izan behar du.

EHAK legez kanpo utzi izan balute utziko zenizkioketen zuen zerrendak Batasunari?

EHAK ez dute utziko legez kanpo, Alderdi Sozialistari ez zaiolako interesatzen. Dena dela, Aralarrek aspaldi egin zien eskaintza zehatza Batasunari eta ilegalizazioaren aurka zeuden gainerako alderdiei. Ez genuen inolako erantzunik jaso, baina bazeuden hainbat aukera.

Inkestek emaitza ezberdinak aurreratu dizkizuete. Egiten diezu kasurik?

Inkestek norabide bat finkatu dezakete, baina azken aldian ez dute asko asmatu. Guk badakigu gizartean babes zabala daukagula, badakigu etorkizuneko proposamenak egiten gabiltzala, eta jende asko ilusionatu dugula. Aralar lehen indar abertzalea da Nafarroan, eta Iparraldean Aralarren planteamendu berdinetatik abiatzen den Abertzaleen Batasuna ere lehen indar abertzalea da. Orain legebiltzarrean jarri gura dugu gure hazia.

Gobernuan ikusten duzu zure burua EAJ-EArekin?

Gure botoak beharrezkoak badira gehiengoak osatzeko, guregatik bada, lehendakaria abertzalea izango da. PPk babestuko duen lehendakari bati bidea moztuko diogu. Baina jokoan dagoena ez da lehendakaria zein izango den. Beste kontu bat da osatuko den gobernuan Aralarrek, ezker abertzale eraginkorrak, zenbat eragin ahal izango duen burujabetzan aurrera egiteko eta ezkerrera egiteko politikan. Horretarako garrantzitsua da modu sendoan sartzea legebiltzarrean.

EAJk 25 urte daramatza agintean. Noiz izango da ezkerraren garaia?

Horretarako oinarriak jartzen gabiltza. Ezker abertzale politikoki eraginkorra izan gura dugu, eta alternatiba eskaini gura dugu gai zehatzetan. EAJ 25 urte gobernuan egon bada ez da izan gauzak ondo egin dituelako, besteek ez dutelako asmatu eskaintza erakargarririk egiten baizik. EAJk eskuak libre izan ditu nahi duena egiteko, izan ere, herri honetan gatazka egoerak izan duen distortsiorik handiena hori izan da.

Aintzane Ezenarro Egurbide Getarian jaio zen 1971n. Soziologia politikoa eta kazetaritza ikasketak egin zituen. Sei urte egin zituen Elkarrin, aldizkariaren zuzendaria izan zen. Urtebete pasatu zuen ETBko *Politicamente Incorrecto* saioan lanean. 2003az gero Getariako zinegotzia da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Aralarreko batzarkidea.

Aro berriari ekiteko gertu

Aro berriaren aurrean gaudela uste du Aralar alderdiak. Eta aro berriak bide berriak behar ditu. Edo bide berriek aro berria bermatuko dute. Horixe eskaintzen du, hain zuzen, Aralarrek: bide politiko soilen alde egiten duen ezker abertzalea.

Bakea eta erabakitzeko eskubidea ditugu jokoan, Aralarren esanetan, eta bakearen eta normalizazioaren legealdia izan behar du datorrenak. Indarkeri guztiak baztertu eta eskubide guztiak defendatzen ditu: legez kanporatzeari aurre egiteko alderdien euskal legea proposatuko du.

Aralarrek ez du ahaztu gura ezkerreko politika: eskubide sozial, ekonomiko eta laboralak, ingurumena eta euskararen defentsa edo emakumeen eskubideen aldarria. Era berean, burujabe izan gizarte hobea eraikitzeko.

Orain, Eusko Legebiltzarrean erein gura du hazia ezkerretik erabakitzen hasteko, eta bide berriak hartuta gertu dago aro berriari ekiteko.

"Bakea lortzeko behar beharrezkoa da ETAk suetena ematea"

"Ezker abertzalea ulertzeko bi modu daude; gurea zibila eta zabala da"

"Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea izan behar du"

NEKANE ERAUSKIN / EHAK

“Eragile sozial guztiak mahai baten aurrean esertzea da gure proposamena”

MIRARI ALTUBE

Izar gorria du ezaugarri Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak, eta demokrazia eta bakea besterik ez ditu eskatzen. Isilean egotetik denon ahotan egotera pasatu dira egun gutxiren buruan.

Gutxik ezagutzen zintuzteten eta orain guztion ahotan zaudete. Ona da hori?

Bueno, ez dakit. Gure ideiak aurrera eramateko eta jende aurrean agerrarazteko uste dut baietz.

PPkoak legez kanpo uzteko eske dabiltza. PSOE ez dago-ela nahikoa arrazoi esaten ibili da. Batasunak zuendako botoa eskatzea nahikoa arrazoi izan daiteke?

Gure ustez ez da nahikoa arrazoi. Batasunak guretzat eskatu du botoa, baina pentsa beste alderdi batentzat eskatu izan balu. Bestea ere legez kanpo utziko lukete? Gure ustez ez dago inolako arrazoirik EHAK legez kanpo uzteko.

Susmopean sentitu zarete Batasunak botoa zuendako eskatu duenetik?

Guk ez dugu ezer txarrik egin, eta ni neu lasai nago. Hala ere, salatzen dugu jazarpena jasaten gabiltzala. Ematen du delituren bat egin dugula, eta gure bizitza pertsonala susmopean egon dela sentitu dugu. Euskal Herria oso txikia da, askok ezagutzen dugu elkar, eta edonorekin hitz egiteko eskubidea izango dugu bada… **Programak eztabaidatzen hasi aurretik, demokraziaren oinarriak jarri behar direla diozue.**

Demokrazia eta bakea beharbeharrezkoak ditugu. Jendea bake eske dago, eta bitartean politikariak euren programak azaltzen dabiltza: etxebizitza, gai sozialak… Horren aurrean, pentsatu genuen: goazen gure programa alde batera uztera, eta demokrazia eta bakea ekartzeko lan egitera.

Hortaz, ez daukazue programarik?

Badaukagu, baina momentuz alde batera uztea erabaki dugu, guretzat oinarrizko helburuak direlako demokrazia eta bakea ezartzea gure herrian.

Izar gorria da zuen ezaugarria. Zeintzuk dira zuen nortasunaren ezaugarriak?

Ezkertiarrak, abertzaleak eta aurrerakoiak gara.

Bakea eta demokraziaren aldeko apustua egin duzuela diozue. Baduzue proposamen zehatzik?

Eragile sozial guztiak mahai baten aurrean esertzea da guretzat garrantzitsuena. Bakoitza bere pentsatzeko erarekin etor dadila, eta oinarrizko helburu batzuk jartzen hasi behar dugu. Ea denon artean adosten ditugun, baina inori baldintzarik jarri gabe. Baldintzak jartzen hasten bagara, alferrik izango da. Oinarri batzuk ezarri behar ditugu, nahi eta nahi ez, demokrazia eta bakea lortzeko.

Posible izango dela uste duzu?

Gu saiatuko gara. Saiakera egin beharra dago; izan ere, jende artean badago gogo eta behar hori. Momentu honetan badago mahai bat, Nazio Eztabaidagunea, eta eragile sozial, poltiko eta sindikal asko daude han lanean hasita. Hori osatzen joan daitekeela uste dugu, eta oinarrizko helburu batzuk jartzen joan.

Irlanda hartu duzue erreferentzia, eta Gerry Adamsek borroka armatua uzteko deia egin dio IRAri. Zuek dei bera egingo diozue ETAri?

Guk momentu honetan ezin diogu inori ezer eskatu. Bakoitzak ikusiko du zein pauso eman behar dituen demokrazia eta bakea ekartzeko. Hori bai, ikusten dugu Irlandan prozesu bat egon dela, ez dela bat-bateko zerbait izan, eta hemen ere ibilbide hori egin beharra daukagu denon artean, hau da, eragile guztion artean.

Zelako emaitzak espero dituzue apirilaren 17an?

Gu ez gara ausartzen esaten zenbat boto lortuko ditugun; gainera, berriak gara politikagintzan, eta ez dakigu. Guk ikusten dugu ilusioa dagoela gure inguruan; jende artean izugarrizko ilusioa sortu dela eta lanerako gogo handia dutela. Hori da, hain zuzen, garrantzitsuena.

Herritarrek babesa emanez gero hartuko duzue parte legebiltzarrean?

Nekane Erauskin Otegi Araman jaio zen 1962an, eta Hernanin bizi da orain. Erizain ikasketak egin zituen eta horretan jardun du. LABeko osasun alorrean egin du lan urte askoan, eta azken lau urteotan Gipuzkoako arduraduna izan da, iazko maiatza bitartean. Lehenengo aldiz aurkeztuko da hauteskundeetara, eta zerrendaburua da Gipuzkoatik.

“Programa badaukagu, baina momentuz uztea erabaki dugu”

“Nazio Eztabaidagunea osatzen joan behar dela uste dugu”

“Irlandan prozesu bat egon da, eta hemen ibilbide hori egin behar dugu”

Bai, bai, guk hitza eman dugu eta beteko dugu.

Eta EAJ-EAk gobernua osatzeko eskatuz gero, zein izango da zuen erantzuna?

Bertan ikusiko dugu. Orain ezin dugu esan zeinen alde egingo dugun. Hori bai, demokrazia eta bakearen alde egingo dugu, eta horren aldeko apustu tinkoa ikusten badugu, legebiltzarrean haren alde egingo dugu.

Politikagintzan berria zara. Zela moldatu zara kanpainan?

Kanpaina oso gogorra izan da. Gu alderdi txikia gara, eta ez gara asko; hortaz, gogorra izan da. Baina ilusioa eta gogoa daukagu aurrera egiteko.

Emakume asko ikusi ditugu EHAKko prentsaurreko eta ekitaldietan.

Euskal Herrian momentu gogorretan emakumeak azaltzen gara beti, lehen ere bai, eta orain ere halaxe izan da. Emakumeok badaukagu beste zerbait, beste sentsibilitate bat.

Bost puntadun izar gorria

Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak argi du zer lortu gura duen hauteskunde ostean: bakea eta demokrazia. Helburua lortzeko, gainera, alde batera utzi du programa. Ez dute lan erreza, baina proposamen zehatzarekin datoz: eragile guztiak mahai baten aurrean esertzea. “Halaxe bakarrik lortuko dugu bakea eta demokrazia gure herrian”, EHAKren esanetan.

Ilusioz egin dio aurre hauteskunde kanpainari EHAKk, eta, bide batez, legez kanpo utzi zuten Batasunaren jarraitzaileak ilusionatu ditu: “Ilusionatuta ikusten dugu jendea gure inguruan, lanerako gogoarekin, eta horrek indarra ematen digu”, dio Nekane Erauskinek.

Programarik ez du azaldu EHAKk, helburua bakea eta demokrazia duelako. Baina izar gorria du nortasunaren ezaugarri; komunisten eta iraultzaileen izar gorria, hain zuzen. Horrek esan nahi du zerbait, eta apirilaren 17tik aurrera ikusi behar.

AMAGOIA LASAGABASTER

Baserritarrek, harakinek eta hiltegiko langileek osatzen dute Hiltegia Bizirik plataforma.

Hiltegia Bizirik taldeak proposamena aurkeztu du hiltegia kudeatzeko

Modu egokiena emakida administratiboa sortzea dela azaldu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Oñatiko hiltegia ixtea erabaki zuen Mankomunitateak iaz. Erabakiarekin ados ez, eta Hiltegia Bizirik plataforma eratu zen. Platafomak proposamena aurkeztu dio Mankomunitateari hiltegia zabalik eduki eta berau kudeatzeko.

Orain dela urtebete eman zituen Debagoieneko Mankomunitateak Zubillagako hiltegia ixteko lehen pausoak. Hiltegia Bizirik plataformakoek, hiltegia ixteko aurkeztutako datuekin bat ez zetozenez, bideragarritasun azterketa bat egin zuten. "Azterketa honetan ekonomikoki eta sozialki hiltegia bideragarria dela ikusi dugu", esan dute plataformakoek.

Beraz, plataformakoek proposamen bat aurkeztu diote Mankomunitateari. Euren esanetan sektoreko eta Mankomunitateko ordezkariak inplikatzeko modurik egokiena da emakida (kontzesio) administratiboa delakoa sortzea. "Formula honen bidez hiltegiko zerbitzua publiko izango litzateke eta kudeaketa enpresa pribatu batek egingo luke".

Plataformakoek egindako azterketaren arabera, hiltegia bideragarria da

Hiltegia Bizirik plataforma osatzen duten baserritar, harakin eta hiltegiko langileak enpresa osatzeko lanetan hasi dira eta orain arte jaso duten harrera baikorra da. "Borondatea egonez gero, denon artean aurrera aterako dugu proiektua", esan dute.

EZ DAGO BIDERIK

PSE-EEk bat egin du plataformaren proposamen honekin eta Oñatiko hiltegia ixtearen aurka dagoela berretsi du.

Jose Luis Anda nekazaritza arloko parlamentariak esan duenez, "Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak behi okelaren sektorea kontrolatzeko erabaki guztiak hartzen ditu Gurokela elkartearen bidez, sektorearen beraren monopolioa lortuz".

Gaurtik aurrera, trafikoa normal Larreategiko zubietan

I.A.

Larreategiko zubibidea 2003ko abenduan inauguratu bazuten ere, zubia konpontzeko ikerketak egin eta konpondu artean bide bakarra izan da zabalik.

Iaz, otsailean hasi zituzten zubia konpontzeko lanak, eta behin zubia gertu dagoela ikusita, gaur, egubakoitza, eguerdian bi zubi bideak zabaldu dituzte ibilgailuendako. Hemendik aurrera, beraz, trafikoa normal ibiliko da Larreategiko zubibidetik.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailak esan digunez, gaur egun, gutxi gorabehera 7.000 ibilgailu ibiltzen dira autobide honetan barrena.

Hala ere, errepidea Gasteizeraino luzatu eta zabaltzen dutenean, ibilgailu kopurua 20.000ra igoko dela aurreikusi dute.

DEBAGOIENEAN LABUR

MUn elkartu dira Comenius taldeko kideak heziketa proiektu bat diseinatzeko

Asteon Mondragon Unibertsitatean elkartu dira Comenius taldea osatzen duten bost herrialdeetako ordezkariak: Gales, Norvegia, Lituania, Irlanda eta Euskal Herrikoak, hain zuzen ere. Batzar honen helburua izan da heziketa proiektu bat diseinatzea hizkuntza gutxituek eta nagusiek bat egiten duten herrialdeetarako.

Elkarrik 2.000 boluntario behar ditu maiatzean 10.000 testigantza jasotzeko

Maiatzean herritarren testigantzak jaso nahi ditu Elkarrik, 10.000 guztira. Horretarako, bosna testigantza bilduko dituzten 2.000 pertsonaren laguntza behar dute. Kolaboratzaile hauek erantzun laburrak jaso beharko dituzte. Besteak beste, honako galdera egingo dute: *Zergatik behar duzu zuk bakea?* Laguntzeko prest daudenek *www.elkarri.org* helbidean eman behar dute izena.

Olabarrieta eta Aztiria espetxean daude eta tratu txarrak jaso dituztela salatu dute

Joan den eguenean Arrasaten atxilotutako Gaizka Olabarrieta eta Gorka Aztiria Soto del Realeko espetxean sartu dituzte bost eguneko inkomunikazioaren ostean. Biek tratu txarrak jaso dituztela salatu dute. Gorka jan eta edan gabe egon dela eta Gaizkak, tratu txarren ondorioz, ile asko galdu duela jakinarazi digute.

Ikasleen itxialdia hizkuntza eskubideen alde

Mondragon Unibertsitateko hainbat ikaslek euskaraz ikasteko eskubidearen aldeko itxialdia egin dute asteon Ikasle Abertzaleak taldeak deituta. MUko Goi Eskola Politeknikoan ikasleek hizkuntza eskubideen urraketa jasaten dutela salatu zuten. "Eskolaren hizkuntza politikak ez du euskararen normalizazioaren bidean helbururik, eta eleaniztasuna baliatzen dute euren borondaterik eza estaltzeko eta marketin kontuetarako egokia delako", esan zuten. /I.A.

Europako bosgarren etxetresna enpresa da Fagor, Brandt erosita

I.A.

Eguaztenean Fagorreko arduradunek 2004. urteko balantzea egin zuten. Bide batez, Frantzian etxetresnen sektorean liderra den Elco Brandt erosteko egindako negoziaketen berri ere eman zuten prentsaren aurrean.

Fagor Etxetresnak taldeak Frantziako merkatuan sektoreko liderra den Brandt enpresa erosi du. Honela, lantaldea, ekoizpena eta salmentak bikoiztu eta Europako bost ekoizle handienen artean dago orain.

Fagorreko arduradunek jakinarazi zutenez, "nazioartera begira jarri gara behin betiko. Mugarri izango da enpresa horretaz jabetu izana. Tamainak garrantzi handia du nazioarteko merkatuan, eta globalizazioari neurria hartu nahi diogu".

Fagorrek aurretik berea zuen Brandten %10, eta orain, gainontzeko %90 du. 162,5 milioi eurotan erosi du.

ETEKINAK HIRUKOIZTU

Talde berriak urtero zazpi milioi etxetresna ekoiztea da euren helburua. "Erronka da etekinak orain halako hiru izatea laster", esan zuten. Iaz Fagorrek 16,8 milioi euro irabazi zituen, eta datozen hiru urteetan 8.300 milioi euroren salmentak lortu nahi dituzte. Hasteko, 2.000 milioi euro fakturatuko dituzte 2006an.

Bestalde, esan zuten Fagorrek konpromiso argia duela gizartearekin, ez dutela lantegirik itxiko eta hemendik ez direla joango.

ANTZUOLA

Independentzia Egunak eta Elkartasun Festak bat egingo dute

Bihar, zapatua, ospatuko dute Independentzia Egunа. Aurten, gazte asanbladak egun horretan parte hartzeko gonbitea egin dio Anelkarri.

Trikitilariekin poteoa egingo dute 13:30ean; 14:30ean, bazkaria egingo dute frontoian, eta bazkalosterako hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Arratsaldean, berriz, txarangarekin egingo dute poteoa.

Anelkarrekoek txistorra jana eta toka jokoa antolatu dituzte 19:00etarako. Batutakoa Kongo, Senegal eta Brasilerako izango da. /AINTZANE IRIZAR

U.M.

ARRASATE

Abendurako bukatuta, Epeletik Kaskonategirako errepidea

Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak Arrasaten izan dira ibarreko azpiegituren berri ematen. Jakinarazi dute, besteak beste, hastear direla Epeletik Eroskiko biribilgunerainoko errepide zatia handitzeko lanak. Lau errei ipiniko dizkiote, noranzko bakoitzeko bi. Gero, errepide horrekin lotuko dira beste bi: Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango korridorea. Horren harira, esan zuten uztailean zabalduko dutela Bergaratik Arrasaterainoko zatia; eta Arrasatetik Eskoriatzarainokoa esleitu egingo dutela. Beste azpiegitura batzuk ere aipatu zituzten: Elgetako saihesbidea uztailean bukatuko dutela eta GI-2632 errepidea konpontzeko lana, maiatzean. Bestelakoen artean, Olandixoko tunela berbagai izan zuen diputatu nagusiak; 2006aren bukaerarako iragarri zuen. /U.M.

OÑATI

1.216 etxebizitza berri egitea onartu du Diputazioak, 505 babes ofizialekoak

Diputatuen Kontseiluak onartu du 1.216 etxebizitza berri egitea Oñatin datozen urtetan. Horietatik 505 babes ofizialekoak izango dira. Eraikuntza berriak herriko zazpi alde hauetan egingo dituzte batik bat: San Martinen 306, Ugarkalden 300, Lazarragan 120, Kasablankan 90, Kalegoienan 85, Kirrukuan 76 eta Kurtzekuan 60. Oñatik 10.705 biztanle dituela hartu dute erabaki hori, eta 2009an 14.000 izango dituela uste dute.

Golf zelaia egiteko aukera ere jaso dute agirian. /OIHANA ELORTZA

ARAMAIO

Udalak irabazi egin du presoen senideen laguntzen gaineko auzia

Arabako administrazioarekiko auzietako bi zenbakiko epaitegiak desestimatu egin du Estatuko abokatuak Aramaioko Udalaren kontra ipinitako salaketa. Presoen senideei dirulaguntza ematearren epaitu zuten Udala joan den martxoaren 25ean. Udalaren abokatuak argudiatu zuen udal zerbitzu sozialen bitartez bideratu zutela laguntza eta hori egitea Udalaren eskumena dela. Argitaratu duten sententziaren arabera, Fernando Alcantarilla epaileak berretsi egin du laguntza horiek Udalaren eskumena direla. /U.M.

BERGARA

Urbanizazio lanak Arrurriagan eta Artekalen, azarora arte

Artekalea, Arrurriaga eta Goenkalea urbanizatzeko lanak abian dira joan den astetik. Lanak Arrurriagatik gora hasi ditu Lasarteko Ozio enpresak eta trafikoa etenda dago San Pedro kaletik Arrurriagara doan tartean. Lehen fase batean Arrurriagatik Goenkaleko irteera doan tartean egingo dituzte lanak; ondoren, Goenkaletik udaletxera doana. Esan bezala, Udalak emandako datuen arabera, urbanizazio lanak azarora arte luzatuko dira.

Tarte horretan trafikoa eten badute ere, etxebizitzetarako eta lokal komertzialetarako pasoa ahalik eta gutxien oztopatzen saiatu dira obrako arduradunak. Edozelan ere, barkamenak eskatu nahi dizkiete lanengatik kaltetutako guztiei. Aste bukaeretan eta jai egunetan lanak modu berezian seinalizatuko dituzte, Arrurriaga, Artekalea eta Goenkalerako sarbidea ahalik eta gehien erraztuz.

GALTZADA-HARRIA BISTAN

Herri barrua berreskuratzea da egitasmoaren helburuetako bat. Ur hoditeria aldatu eta espaloiak berritzeaz gain, bestelako txukuntze lanak egingo dituzte hurrengo hilabeteotan. San Pedro parrokia eta udaletxe artean dagoen eremuan bezala, galtzadaharria bistan lagako dute.

Iñaki Aspiazu bergarar arkitektoak egindako proiektuaren arabera, lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua izango dute. Aurrekontuaren %30 Eusko Jaurlaritzako Izartu programaren bitartez finantzatuko dute. /EDU MENDIBIL

Zertzelada

Lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua izango dute. Aurrekontuaren %30 Eusko Jaurlaritzako Izartu programak finantzatuko du

ESKORIATZA

Apotzagan bidea moztu zuten, autobidearen lanengatik haserre

Eguaztenean, hainbat elizatetako lagunek bidea moztu egin zuten Apotzagan. Elizate horietako bizilagunak oso haserre daude, Apotzagan autobidearen lanak hasi zirenetik bidean kamioi ugari izaten dituztelako eta orduak itxaron behar izaten dituztelako. Are gehiago, auzotarren esanetan, autobidearen bultzatzaileek beste bide bat egingo zutela agindu zieten, baina "ez dute hitza bete". Horregatik, autobideak kaltetutako 50 bat lagunek Apotzagarako bidea moztu zuten 07:30etik 12:00ak arte.

Autobidea egiten dabilen enpresak, Udalak eta auzotarrek oraindik ez dute konponbiderik aurkitu. /I.B.

IKER BARANDIARAN

Protestak egiten jarraituko dute konponbiderik ezean.

ARETXABALETA

Poesian oinarria duen ikuskizuna gaur gauean, udaletxe zaharrean

Arrakalak ikuskizuna eskainiko die gaur gauean aretxabaletarrei Loramendi Euskara Elkarteak. Bihotz Bakartien Klubeko kide Gotzon Barandiaranen poemek osatutako ikuskizuna da. Bere aldetik, Arte Ederretako ikasleek, Begoña Vicario zinegilearen ikasleek hain zuzen, poemetan oinarritutako animaziozko irudiak egin dizkiote. Ikuslea poesiara gerturatzea du helburu musika, irudia eta poesia uztartzen dituen ikuskizunak. 22:30ean izango da ekitaldia, udaletxe zaharrean. /M.A.

ELGETA

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea, zabalik maiatzaren 31ra bitartean

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Errolda udaletxean dago ikusgai. Apirilean barrena zerrenda aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute ibilgailuen jabeek. Ondoren, maiatzaren 31ra bitarteko epea izango dute zerga ordaintzeko.Guztira 686 ibilgailu daude Elgetan. Turismoak dira gehienak, 572 hain zuzen ere. Ondoren, motorrak eta motozikletak daude, 44 guztira. Kamioiak 43 dira. Erremolkeak eta traktoreak, berriz, 14 eta 13 dira hurrenez hurren. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Datorren urteko Euskal Bizikletak Gatzagan egingo du geldialdia

Gatzagako bizilagunek, baina, ez dute datorren urtera arte itxaron behar izango txirrindulari profesionalak bertatik bertara ikusteko. Datorren ekainean, Araba aldetik etorriko den etapa Debagoienean sartzen denean, Arlaban errepide zaharretik jaitsiko dute, herritik.

AMAITU ETA HASI

Eta datorren urteko ekainean, Euskal Bizikletako etapetako bat herrian amaituko da, eta hurrengo egunekoa ere bertan hasiko da. /X.U.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

Padrig An Habask

KEMPER-EKO DIWAN-EKO ZUZENDARIA

“Bretoierak ez du inolako onarpen politikorik; estatistiketan ere ez dute kontuan hartzen”

Bretainiako Kemper herrikoa da Padrig, eta ikasleekin batera etorri da Arrasatera, Arizmendi Ikastolak gonbidatuta. Diwanen egoeraz eta bretoieraz hitz egin digu. Euskararen eta bretoieraren hiztegia ari da prestatzen.

O.E.

OIHANA ELORTZA

Non dago Kemper?

Bretainiako mendebaldean dago, Finisterreko aldean.

Ze harreman duzue Arrasaterekin?

Arizmendi Ikastolak gonbidatuta etorri gara. Elkartrukea dugu eginda Arizmendi Ikastola eta Kemper-eko diwanaren artean. Martxoan hemengo ikasleak izan ziren Bretainian eta orain gu etorri gara Euskal Herrira, Arrasatera. 27 ikasle eta hiru irakasle etorri gara.

Zuk zeuk, hala ere, lehenagotik duzu harremana Arrasaterekin, ezta?

Arrasatera natorren zazpigarren aldia da. 1995ean izan nintzen lehenengo aldiz, kooperatiben mundua ezagutu eta harremanak izan nahi nituelako. Udaletxeko arduradunekin ere izan nintzen, bi herrien arteko harremanak sortzeko.

Garai hartan arazo dezente zeuden Bretainian euskal errefuxiatuekin. Hasieran ondo zeuden, baina poliziak atxilotu egin zituen gero, eta baita haiei lagundu zieten pertsonak ere. Guk erakutsi nahi genuen posible zela harreman zabalak izatea Euskal Herriarekin, harreman kulturalak edo ekonomikoak, adibidez. Horixe zen gure helburua, eta hiru edo lau aldiz izan ginen hemen harreman horiek sortzeko eta sendotzeko. Hemengo familia asko ere Bretainian izan ziren.

Ikastolekin harremana ere orduan egin zenuten?

Ikaspilota egitasmoaren bidez, ikastolekin harremana eta elkartrukea egin genuen. Herri Urratsen ere izan ginen.

Zer da, berez, diwan bat?

Diwan hitzak *hazia* esan nahi du. Duela 27 urte zabaldu zen lehen diwana, eta Bretainiako ikasleek bretoieraz ikasteko eskola da.

Hemengo ikastolen parekoa da?

Hizkuntzaren egoera oso ezberdina da, baina printzipio berak dituzte.

Lehen diwana zabaldu aurretik, Iparraldean izan ginen, ikastolak nolakoak diren ikusten, nola antolatuta dauden, lana nola egiten duten.

Filosofia bera dute?

Helburua da ikasleak bretoi hiztun bihurtzea. Baita herritarrak sortzea ere Bretainiako interesak defendatzeko postutan lana egiteko.

Diwana gurasoen elkarte bat da, baina bere egoerak ez du zerikusirik ikastolen egoerarekin. Bretoierak ez du inolako onarpen politikorik, Bretainiako biztanleriaren zati garrantzitsu batek hitz egiten duen arren, pertsona nagusiek, batez ere. Diwana jaiotzen den garaian, hango hezkuntza publikoko ikastetxeek zein erlijiosoek ez dute inolako obligaziorik bretoieraz ezer irakasteko. Beraz, duela 27 urte izan zuten umeek lehendabiziko aldiz ikasketak bretoieraz egiteko aukera. Harrez gero, ikastetxe publikoak eta erlijiosoak hainbat ikasgai bretoieraz irakasteko eskaintzak egiten hasi dira, poliki-poliki, eskola elebidunak eskaini arte.

Zein da aldaketa horren arrazoia?

Merkatuaren zati batek ihes egiten dielako hartu dute erabakia, nire ustez, ez bretoieraz, hizkuntzaz, asko arduratzen direlako. Frantziako hezkuntza publikoa gero eta okerragoa da, eta pribatuak gero eta gehiago dira. Zentzu horretan, ikasleak merkantzia gisa hartzen dituzte eta diwanetara doazen ikasleek ihes egiten diela ikusten dute.

DIWANAK ETA IKASTOLAK

“Ikasleak bretoi hiztun bihurtzea da helburua, eta Iparraldera etorri ginen duela urte batzuk hemengo ikastolek nola lan egiten duten ikustera; filosofia bera dugu”

DIWANEN GARRANTZIA BRETOIERAN

“Diwanak jaio zirenetik, gainerako ikastetxeak ere gairen bat edo beste bretoieraz eskaintzen hasi ziren; gizartean iraultza kultural txiki bat egin dute diwanek”

Ikusten dute diwanek ere laguntzen dutela gizarteak bretoieraz hitz egiteko ardura hartzen?

Diwanek iraultza kultural txiki bat egin dutela uste dut. Lehenengo aldiz, bretoierak garrantzi berezia hartzen hasi zen Bretainiako gizartean, mespretxua alde batera utziz. Izugarrizko aldaketa izan du.

Hasierako gurasoak militanteak ziren, baina orain diwanak eskaintza ezberdinak eta asko eskaintzen ditu. Azterketen emaitzak oso onak dira. Beraz, arrazoi bat baino gehiago dituzte gurasoek umeak diwanetan eskolaratzeko.

Nola dago osatuta diwanen elkartea?

Oinarrian, aita-amen elkartea da; berak erabakitzen du eskola sortzea eta irakasleak kontratatzea ikasleei erakusteko. Datorren astean dugu diwanen elkartearen batzar orokorra; gurasoek botoen %80 dute, eta beste %20, irakasleek.

Ikasketa guztiak eskaintzen dituzte bretoieraz diwanetan?

Bai. Lehen Hezkuntzan bretoieraz irakurtzen eta idazten irakasten zaie. 8 edo 9 urte dituztenean frantsesa ikasten hasten dira. Bigarren Hezkuntzan, berriz, irakasten diren gai gehienak bretoieraz irakasten zaizkie; soilik hizkuntzak ematen dira beste hizkuntzetan: ingelesa, alemana edo latina, adibidez.

0tik 18 urte bitartekoak dira ikasleak, eta gero unibertsitatera joaten dira. Hala ere, guztiek ez dituzte ikasketak diwanean hasi eta bukatzen. Bretainia erdi inguruan lizeo bat dugu, bakarra, eta ikasleen erdiak pasatxo joaten dira bertara, gutxi gorabehera.

Zenbat diwan daude Bretainian?

Guztira 27 daude; bost Bigarren Hezkuntzako lehenengo gradua eskaintzen dutenak eta beste bat Bigarren Hezkuntzako bigarren gradua eskaintzen duena.

Bi urtean behin diwan bat irekitzen dugu. Aurten, Parisen zabaldu dugu bat eta oso pozik gaude.

Laguntzarik jasotzen duzue instituzioetatik?

Finisterreko departamenduak ematen digu laguntza gehien, hiru laurdenak, hain zuzen ere. Bretainiako erregioek ere ematen digute. Bestalde, ikastetxe erlijiosoek laguntza dute ikasle bakoitzeko, eta guk ere bai, horretan egoera berean gaude.

Zer nolako egoera bizi du bretoierak orokorrean?

Bretainian lau milioi herritar inguru bizia gara eta horietatik 300.000ek hitz egiten dugu, gutxi gorabehera, ez dago inolako daturik eta. Hizkuntza estatistikak egiten dituztenean, inoiz ez dira agertzen bretoi hiztunen datuak. Adibidez, joan den urtean, ikasketa elebidunak egin zituzten ikasleen datuak argitaratu zituzten. Lehendabiziko aldiz bretoiera agertu zen, baina ingelesa edo espainolaren kategoria berean agertu zen.

Hitz egin nahi duenak duela urte batzuk baino errazago hitz egin dezake, baina egoera ez da oso ona. Pertsona nagusiek hitz egiten dute gehienbat, eta horien eta gazteen arteko erlazioak sortu eta bultzatu behar dira. Hitz egiten duten askok bretoiaren aurkakoak ziren lehen, eskola publikoetan gogor egiten zutelako gure hizkuntzaren aurka.

Ze etorkizun ikusten diozue?

Bretainiako asanbladak bozkatu du, lehendabiziko aldiz, bretoiera dela Bretainiako hizkuntza ofiziala. Orain, bretainiar bat dago hizkuntza politikan, eta ea horrek ere laguntzen digun.

Bestalde, herritarren gehiengoa bretoieraren alde dago, eta orain etxean, kalean, lantokian eta toki guztietan hitz egin behar dugu.

Zuk zeuk, nola ikasi zenuen euskaraz hitz egiten?

Liburuekin, nire kasa, egunero irakurtzen eta lantzen. Kanadako bi idazlek ateratako liburu batekin ikasi dut.

Orain, euskararen eta bretoieraren hiztegia ateratzeko asmoa duzu.

Zazpi hiztegi kaleratu ditugu orain arte. Txikiak dira, oinarrizko hitzak dituztenak, baina erabilgarriak. Hizkuntza gutxituetan ateratzeko asmoa daukagu, eta baita euskarakoa ere.

Zer moduz pasatu duzue astea?

Primeran. Eusko Legebiltzarra ikusten izan gara Gasteizen, baita Donostiako Kursaala eta Bilboko Guggenheim museoa bisitatzen ere. Gernikan bakearen museoan izan gara, baita Arrasateko Udala auzoan eta Goienako egoitzan ere.

Bizipenez betetako bidea

Harreman berrietarako topalekua,
nire etorkizuna lantzen hasteko gunea,
konpromiso eta solidaritatearen ildotik.
Hori da nik nahi dudan Batxilergoa...
Bizipenez betetako bidea.

ate irekiak
Apirilak 19, Almen gunea 18:00
ezagutu gaitzazu!

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Sofa leku

Eskaintza **zabalagoa** zure esku erakustoki **berrian**

HEMEN BADUZU NON AUKERATU!

grupo amuebladora mondragonesa

SOFALEKU
Zigarrola 1 (1go pabilioia)
Arrasate
▪ Tel. eta faxa: 943 79 14 89

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 15etik 22ra

blogs & beers

Euskal Herriko blogarien lehenengo topaketa, hilaren 17an, Elgetan /19

AZALA: IÑAKI ITURBE

IDIOMASTER

IKASTARO TRINKOAK UZTAILEAN

- Umeentzat, gazteentzat eta helduentzat
- Adin guztiak, maila guztiak eta talde txikiak (10 gehienez)
- 2 edo 3 ordu egunean (goizez edo arratsaldez)

Hizkuntzak: ingelesa eta frantsesa

UDAKO EGONALDIAK

- Gazteentzat Plymouth-en
- 18 urtetik gorakoak Edinburgon

Zatoz eta informa zaitez!

Otalora 29, behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 07 84 • idiomaster@euskalnet.net

JAIAK/ I. EUSKAL HERRIKO BLOGARIEN TOPAKETA

Blogari izan edo ez, ongi etorri!

JENDEA EZAGUTZEKO, BLOGEN GAINEAN GEHIAGO IKASTEKO ETA HAUTESKUNDEAK JARRAITZEKO AUKERA IZANGO DA ETZI ELGETAN

LEIRE KORTABARRIA

Lagunarteko giroa, blogak eta hauteskundeak: horiek guztiek bat egingo dute etzi, domekan. Arratsalde-gau parte horretan ospatuko da Euskal Herriko blogarien lehenengo topaketa, beste herrialde batzuetan *blogs & beers* (blogak eta garagardoak) izena duen jaialdi mota.

Goiena.net eta *Eibar.org* webguneetako blogariek asmatu zuten etzi, hilak 17, euskal blogarien lehen topaketa egitearena. Elgetan batzartuko dira, Espaloia antzokian, eta ateak zabalik izango dira, 19:00etatik aurrera, bat egin nahi duen edozeinendako, bloga idatzi edo ez, *geek*-a –ordenagailuen zale amorratua– izan edo ez... Jende berria ezagutu, irakurtzen aritu garen blog baten egilearekin aurrez aurre berba egin, bloga hasteko gogoa izan edo, beste barik, lagunartean pintxoa eta edaria hartzeko gogoa izatea dira baldintza bakarrak.

Blogs & Beers deitzen dira atzerrian eta, oraingoz, baita gurean ere, nahiz eta batzuek proposatu duten izena euskalduntzea: *Blogak, Sagardoa eta Txakolina* izena bota zuen Debagoieneko blogari batek. Hori oraindik ez da onartu; baina Elgetako jaiak izango du bertakotasunaren ezaugarri bat, ordea: hauteskundeak.

Izan ere, hauteskunde gauak ematen dituenak jarraitzeko pantaila handi bat egokituko dute Espaloikoek. GOITB edo ETBko informazioa ikusteko modua izango da han. Irratia.com Interneteko irratia ere han izango da eta bere irratsaioa zuzenean bota eta grabatu ere egingo du.

Bestalde, pantaila hori ordenagailuekin ere konektatu daiteke, eta batutakoren bat bere bloga jendaurrean erakusten ere animatuko da, ziur.

CODE & SYNTAX

Argazkian, *www.eibar.org* webguneko blogari batzuk. Elgetara joatekoak dira eurak ere.

B&B jaien FAQa

ZERGATIK ARETO HANDI BATEN?
Espero da talde eder bat osatzea; gainera, berandu ixten duen egoitza bat izan behar du, eta konektatzeko aukera eman behar du. Espaloiak horiek betetzen ditu. Ahaztu barik hauteskunde gaua jarraituko dela.

EZ DUT BLOGIK. JOAN NAITEKE?
Bai horixe! Denoi zabalik dago jaia. Egitan, blogen aitzakiaren inguruan lagun talde bat elkartzeko parada dira jaialdi horiek.

ULERTUKO DITUT BERBAK?
***Blog & Beers* jaialdiak ez dira informatikarien bilkurak. Beste edozein lagunarteko elkarrizketak egongo dira.**

GARAGARDOA SOILIK IZANGO DA?
***Blogs & Beers* (blogak eta garagardoa) izena da ohikoa, baina denetariko edariak zerbitzatuko dituzte. Baita pintxo goxoak ere.**

Elgetakoa da Euskal Herrian antolatzen den bitakora idazleen lehenengo jaialdia

EZAGUN ASKO

Blogs & Beers jaialdiak antolatzen dira, hiri handietan, blogariek aurrez aurre elkarrekin egoteko parada izan dezaten. Gurean, ordea, herri txikia izanda, lehendik elkar ezagutzen zuten lagun asko batuko dira Elgetan, gehienak ere Debabarrenekoak, haik dira eta Euskal Herriko aitzindariak. Joxe Arantzabal (*www.goiena.net/blogak/faroa*), Asier Sarasua (*www.eibar.org/blogak/sarasua*), Maite Rementeria (*www.eibar.org/blogak/maite*), Luistxo Fernandez (*www.eibar.org/blogak/luistxo/eu*) edo Gari Araolazak (*www.eibar.org/blogak/teknosexua*) baieztatu dute joango direla. Hala ere, Internet bat-bateko komunikabidea da, eta joango direnen postak helbide honetan agertzen dira: *www.espaloia.com*.

Jende ezaguna izango da: Joxe Arantzabal, Asier Sarasua, Luistxo Fernandez...

ARGAZKIAK ERE BAI

Blogarien topaketen beste berezitasun bat da ez direla egunean bertan bukatzen: bitakorek eskaintzen duten aukera bat da argazkiak ipintzea. Eta Euskal Herriko lehenengo *Blogs & Beers* jaiak ematen dituenak iruditan ikusiko ditugu Interneten, izan ere, "kamera digitalen bat edo beste ere izango da", antolatzaileen esanetan.

Pantaila handi bat ipiniko dute hauteskunde gauaren nondik norakoak ikusteko

Topaketak, Internet bera bezalakoak

Askotan ikusi ditugu, telebistan, informatikarien edo Internet aditu edo zale amorratuen bilkurak, norbera bere ordenagailuarekin eta arlo horretako hizkuntza teknikoa erabiltzen. Bada, inor ez dadila horrelakorik Elgetan topatzeko beldurrez gera. *Geek*-ak –ordenagailuen jarraitzaile sutsuak– azaldu, azalduko dira seguruenik, baina, Iban Arantzabal Goienako telematika arduradunak dioskun bezala, "blogariak dira idaztea gustuko duen jendea, informatika gustuko duena baino gehiago". Denetariko pertsonak azalduko dira, denetariko bitakorak dauden bezala.

Bitakora idazleon topaketak Internet bezalakoak dira: ez dago erdigunerik, ezta kanpo-mugarik ere; denok denokin konektatzen dira; elkarrizketak erraz sortzen eta garatzen dira.

Batzuetan, lagun guztiak gai berberaz ari dira eta, beste batzuetan, hainbat elkarrizketa desberdin dago beste hainbeste taldetxotan. Parte-hartzaileak leku batetik bestera mugitzen dira eta guztiak dira oso irekiak. Topaketak egiteaz inork ez du abantailarik lortzen, eta helburu bakarra da elkar ezagutzea. Hau da, beste edozein jaialditan gertatzen den bezala.

Bloga eskatzeko aukera

Blogik ez dutenak ez daude deialditik kanpo, ez horixe; are gehiago, eurendako bereziki interesgarria izan daiteke Elgetako jaialdia. Izan ere, ikusmina dutenek inoiz baino aukera gehiago izango dute blogen gaineko galdera guztiei erantzuteko eta zenbait bitakora ikusteko.

Antolatzaileetako bat Iban Arantzabal da, Goienako Telematika saileko arduraduna, eta dei berezia egiten dio blog bat zabaldu nahian dagoen edozeini: "*Goiena.net*-en bloga egiteko aukera izango dute", diosku berak.

Eta ez, ez da beharrezkoa norberak bere ordenagailua eramatea. Batzuek hala egingo dute, baina Espaloian badago jendeak erabiltzeko gertu dauden zenbait ordenagailu, Internetera konektatuta, noski.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

Gutunak

‘El Quijote’-ko euskarakadak

El Quijote delako liburuaren testuan espresio harrigarri batzuk aurkitu ditut, orain dela gutxi arte euskara mintzatuan oso ohikoak zirenak, oraingo euskara berrian ez dira hain arruntak baina, hara esaldiok:

De hoy más, de mañana màs: Gaurtik gehiago, bihartik gehiago.

Además, erdarazko *sobre* adierazteko: Gainera.

Hazme acordar Sancho, oraindik ere erdaraz egiten duten euskaldunen artean oso esaldi erabilia: Akordatu eragin edo gogora arazi.

Tomadme el dormir: Loak hartu, ez du adierazpen berezirik behar.

Más vieja que Sarra.

Luego, euskarazko gero-ren zentzu berezi honetan, elkarrizketa zuzenetan zerbait indartzeko edo erabiltzen den moduan, *Ven luego, no digas esas cosas luego, no olvides luego:* Etorri gero! Ez esan holakorik gero! Ez ahaztu gero!.

Esto dicho, esto hecho: Hau esanda, hau eginda, euskararen joskera tradizionalean esaten den bezala.

El mesmo es, señora, aurrekoan bezala galdegaia aditzaren aurrean, oraingo erdaran dagoeneko esateko modu arrotza, baina euskaran espresio normal normala: Bera da, andrá.

El Quijote-n sartutako erromantze batean bertso hau irakur dezakegu: *Metieron al rey don Rodrigo / Vivo vivo en una tumba.*

Días yendo días viniendo: Egunak joan egunak etorri.

Entonces Teresa responder: Orduan Teresak erantzun, euskara berrian aditza behar baino gehiagotan jokatzen badugu ere, euskaldun zaharrek, ordea, ez dute hainbestetan egiten, eta holako esamoldeak oso normalak izaten dira.

Que otro alguno, esaldi hau oraindik erdara dialektalean erabiltzen da, baina hala ere ohartu gaitezke euskararen egitura bera erabiltzen dela.

Beste espresio hauek euskarara zuzen-zuzen bihurtu daitezke: *Su daño* (bere kalte), *En fin, en fin* (azken azkenean), *En verdad* (benetan).

Beste espresio hau dudakorragoa da: *Si dan: aunque den,* adierazteko, Mondragoen, behintzat, erdaraz egiten dugunean euskaldunok askotan erabilitako espresioa: *Si dan, tambien, Emuten badaue be* esaldiaren kalko zuzena.

Yogar aditza, euskarazko jo-aren zentzu berean, Maria Molinerren hiztegian dakarrenez latinezko *Yacere*-tik ei dator, baina nik esango nuke euskarazkoa jatorri zentzuzkoagoa dela.

Nondik etorri daitezke kointzidentzia hauek? Euskaraz hobeto baneki, gainera, kointzidentzia gehiago topatuko genituzke. Euskaraz zekien Cervantesek? El *Quijote*-ko pasarte batean, Don Kixotek borrokan egiten du “vizcaino”, euskaldun batekin eta hara zer esaten duen Don Kixotek Sancho Azpe(i)tiakoaren hizketaldiaz: *Sus mal trabadas razones en mala lengua castellana y peor vizcaína.* Nola zekien Don Kixotek, edo Cervantesek Sancho Azpeitiakoak ez zuela euskaraz ondo egiten? Esan dezadan bide batez gaur eguneko euskaldun askoren akatsa egiten zuela gure “bizkaitarrak”, hots, euskaraz zein erdaraz txarto egiten dugula. Pixka bat aurrerago bizkaitarra eta Don Kixoteren arteko borrokaren pasarte berean, zera gaineratzen du Cervantesek *Todo esto entendiolo Don Quijote.*

Beste kointzidentzia historiko bat ere egon daiteke, Cervantesek parte hartu zuela Lepantoko guduan edo borrokan. Gudu hartako kristau indarren agintari gorena Don Juan Austriako izan zen, eta Joan Perez Lazarragakoaren esku izkribuan, Don Juan Austriakoaren aipamena agertzen da, Lazarragak kopla batzuen dedikatoria edo eskaintza egin baitzion errege Filipe II.aren anaia bastardoari. Cervantes 1547.urtean jaio zen eta Larreako jaunaren jaiotza 1547-49 tartean kokatzen dute jakitunek. Hala, bada, baliteke Cervantes eta Lazarraga “kinto-lagunak” izatea. Kontuan hartzen badugu gainera Austriarren politika militarista eta garai hartako “bizkaitarren” ekinbide zabalduena Espainiako kanpaina militarretan zegoela, oso posible da biak ere noiz edo noiz kanpainaren batean edo parean tokatzea edo egokitzea. Asko ziren, gudaritzan aritzen ziren euskaldunak, maila kultural handikoak izan ere. *El Quijote*-ren beste pasarte batean Don Kixotek euskaraz idatz dezaketen euskaldunen aipamena egin zuen. Beraz, ez zen harritzekoa izango Cervantesek euskaraz idazten zuten, Lazarraga edo bere modukoak ezagutzea.

RAMON UGALDE GOROSTIZA
Arrasate

Ustelkundeak 05

Gezurra, korrupzioa, manipulazioa, hipokresia, intoxikazioa... ustel kiratsa dariozue.

25 urtez egin dituzuen politika atzerakoiak, zuen eta zuenen mesedetarako erabili dituzue. Ama lurra, hizkuntza eta eskubide sozial, zibil eta politikoak beti hirugarren mailan utzi dituzuelarik.

Hor zabiltzate orain, zirko-kanpainan murgildurik, “made in USA” sasi eztabaida eta guzi. Batzuek abertzale eta beste batzuek ezkertiar plantak eginaz. Berriz ere instituzio publiko batean (EAEko parlamentuan oraingoan), herri honetako sektore zabal bat kanpoan uzteko gupidarik izan ez duzuenean. Zuek bai, demokrata zintzoak.

Orain ere, herri honetako sektore aurrerakoiak izan dira, beren alderdi eta programak alde batetara utzi eta benetako justizian oinarrituriko eskenatoki demokratiko batetarako bidean, beren alderdia bakea eta autodeterminazioaren mesedetara jarri dituztenak. Bejondeiela.

Argi baitago herri honetan geroz eta gehiago garela, interes pertsonal eta partidistak alde batetara utzi eta bakea eta konponbidea bilatzeko, eztabaida eta konpromiso zintzoak hartu behar direla uste dugunok.

Beraz, ez dezagun aukerarik galdu abertzale eta aurrerakoiok, hurrengo lau urteetan gure giltza sendoa hor egon dadin, bozka dezagun: Euskal Herrialdeetako Alberdi Komunista.

ATARRATZ ETXEBARRIA
Arrasate

Zergatik bozkatu Aralar?

Lagun baten galderari erantzuten hasi naiz eta galdera bera egin dezaketen debagoiendarren eskura jartzea erabaki dut. Azken urteetan lehenengo aldiz, giza eskubide guztien, ezkerraren eta abertzaletasunaren alde bozkatu gura izan dugunok ez diogu Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hiru ardatz nagusi horietako bati ala besteri uko egin beharko. Lehenengoz, badaukagu hirurak tinko eta elkarren mendekotasunik gabe defendatuko dituen aukera bat: Aralar.

Oso posible da PNV-EAk PSE-EErekin erabakitzeko eskubidea jasotzen ez duen estatutu berri bat adostea. IUk dagoeneko esan du ez duela eskubide hori errekonozitzea helburu zuen plana defendatuko. PNV-EAk berriz ez du esan gura zeri buruz egingo duten kontsulta. Aralarren indarrak bakarrik garantizatuko du herri honen etorkizunerako eta gatazka gainditzeko ezinbestekoa den urratsa, Euskal Herritarren erabakitzeko eskubidea egia bihurtzea.

Bestalde, herri honek abertzaletasun kontserbadorearen egiazko alternatiba bat behar du, ezkerrekoa eta abertzalea, oposizio tinko bezain eraikitzailea egingo duena. Ezker abertzaleak, tradizioz, gehiegitan utzi ditu bigarren mailan eguneroko politikako kontuak, autodeterminazioaren edo estrategia antirrepresiboaren aitzakian. Horrela, PNV-EAk egiten duten politika neoliberala egin daitekeen bakarra dela ematen digute aditzera, ez zaielako benetako oposiziorik egin. Aralarrek horretarako landu du programa zabala eta praktikoa: AHTren aurka tren soziala; emakumeen berdintasunerako, benetako neurrien zerrenda; etxebizitza eskubidearen alde espekulazioa akabatuko duen lurzoruaren lege egokia, etxebizitzen %50etik gora babestuak izatea; baserritar eta arrantzaleendako Europan ahots propioa eta hemengo instituzioen babes neurri eraginkorrak (hiltegi publikoak mantentzea, adibidez); gastu soziala BPGren %26raino igotzea; subkontratazioen aurka borrokatzeko neurriak; gutxieneko soldata, oinarrizko errenta eta pentsioak 800_tara igotzea; Lan harremanetarako euskal esparrua; errausketaren ordez, irtenbide global eta ekologikoak; kanpo zorra ezabatu; ejerzito guztiak eta polizia militarrak desegin; osasungintza, hezkuntza publikoaren defentsa tinkoa; herri kontsultak gai sektorialetan ere; eta abar.

Hirugarren hanka bakea dugu, helburu gisara ez ezik jarrera eta bide modura ere bai, “pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak”: euskal presoen eskubideak, mehatxatuenak, legez kanpo utzi dituzten alderdienak…

Aralarrek Batasunak aurkezteko eskubidea defendatu du, baita hautes-batzordearen aurrean errekurritu ere. Aralarrek irtenbide baterako eskua luzatu zion eta, hala ere, begi honez ikusi du EHAK-k eman dion aukera. Egoera hau gainditzeko Eusko Legebiltzarrean Alderdien Lege demokratiko bat proposatuko du eta Batasuna legezko egiten dugunean berriz hauteskundeak deitzea eskatuko du.

Bukatzeko, etorkizuneko ezker abertzale elkartua oinarri zibil eta zabaletan berreraiki behar da, Aralar aspaldi lantzen ari den bidetik, Batasunak Anoetan onartu zuen bidetik. Lehen aipatutako hiru helburuez gain, bide hori ere bultzatu eta garantizatuko du Aralarri botoa ematen dionak. Zuena da aukera.

XABIER SARASUA
Debagoiena

Bergara eta Euskal Herriko demokratak

Osteguna, apirilaren 7a, arratsaldeko bostak, lagun bat eta biok Batasunak larunbatean deitutako manifestaldi baterako kartelak jartzen. Ertzaintzaren patruilak inguruan, gu lasai, aldrebes xamar dabiltza, baina, honegatik ezin digute ezer egin pentsatzen nuen.

Bai zera! Segituan etorri zitzaizkigun bi morrosko eta harrosko, kartelak kendu eta ordubetez kalean eduki gintuzten…, atxilotu egin gintuztenera arte. Eskuburdinak jarri eta komisariara: katxeoa, hatz-markak hartu, argazkiak atera eta zigor-gelara. Bost orduz egon ginen komisarian Madrilera eramango gintuztela mehatxu eginez, guri eta gure familiari, hauek bai demokratak! Orain Madrileko Auzitegi Nazionalean dago kasua, *Enaltecimiento del terrorismo* akusaziopean kartzela zigorra jarri nahi digute.

Jarrera hauek ez dira kasualitatea, ezta isolatuak ere, Ertzaintza Eusko Jaurlaritzaren aginduetara dago, beraz, egoeraren arduradunak PNV-EA eta IUko demokratak dira. Oso larria da, autodeterminazioa eta bakea eskatzen zuten kartelengatik terrorismoa goratzea leporatzen digute. Demokrazia eta bakea dago jokoan, Madriletik eta Gasteizko hirukotik, ahalik eta oztopo gehien jartzen ari dira bakea lortzeko, baina, ez dute lortuko, ez gaituzue isilduko, bakea eta autodeterminazioa lortuko dugu! Orain EHAK!

IBAI REDONDO
Bergara

Apirilaren 17an ezkertiar eta abertzaleok bozkatu EHAK

Azken urteetako lan eta borrokari esker Euskal Herriari inposatuak zaizkion markoak krisian sartu ditugu eta aldaketa politikoa martxan da gure herrian. Estatus politiko zaharrek agerian utzi dute Euskal Herrira demokrazia eta bake iraunkor eta justu bat erakartzeko bere ezintasuna. Ondorioz, datorren aldaketa politikoa Euskal Herriak behar duen konponbide demokratikoa eskuratzeko baliagarria izan dadin ari gara gogotsu eta iraunkorki lanean bereziki azken hilabetetan.

Gogoan izango duzun bezala Batasunak eta ezker abertzaleak ofentsiba politiko oso bat martxan jarri du azken

hilabetetan eta ildo horren mamia eta lehentasuna pairatzen dugun gatazka politiko eta armatuari behin betirako irtenbide demokratikoa da inongo zalantzarik gabe. Azaroan Anoetan aurkeztutako proposamena, abenduaren 30ean Ibarretxe planaren aurrean izandako jarrera, ondoren Zapaterori eta Chiracheri luzatutako eskutitzak, nazioartean egiten ari garen lan eskerga zein Nazio Eztabaida Gunean beste eragile askorekin batera lortutako Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa ezker abertzaleak daraman ofentsiba politiko orokor horren ageriko adibideak dira.

Une horren baitan aurreratu zituen hauteskundeak Ibarretxek eta ondorioz hauteskunde horien ondoren ekingo zaio zalantzarik gabe herri honetan negoziazio prozesu bati, nor arituko den eta zertarako oraindik orain zalantzan badago ere.

Horregatik hauteskunde hauek garrantzia berezia hartzen dute ezker abertzalearentzat. Hauteskunde hauetan instituzio baten ordezkaritza bat baino askoz ere gehiago dago jokoan. Hauteskunde hauek ezker abertzalea eta Batasuna azken hilabeteetan burutzen ari den ofentsiba politikoa garatzeko eta indartzeko parada suposatuko dute, gatazkaren konponbide demokratikoari bultzada eman eta Anoetan aurkeztutako proposamenean esan bezala herri honetan behar diren konponbiderako bi mahaien osaketa bultzatzeko aukera izango dugu.

Momentuz eta EHAK-ren eskaintzari esker bozkatzeko aukera legala dugu. Guk hipotesi guztien arabera mugitu behar dugu, alegia EHAK-ren aurkako legez kanporatze prozesuren bat ere martxan jarri dezaketela, baina jakin behar dugu ere une honetan eskubide zibil eta politikoak, demokrazia eta bakea aldarrikatzeko dagoen aukera legala babesteko aukera paregabea dugula.

Beraz, igandean bozkatu EHAK.

DEBAGOIENEKO BATASUNA
Debagoiena

ELAren aurpegi bikoitza

ELA sindikatuaren azkenaldiko politika bikoitzari jarraituz Debagoieneko metaleko LAB sindikatuko kideok gure ardura adierazi nahi dugu publikoki. Izan ere, hitzetan gauza bat esan eta eguneroko ekintza sindikalean beste bat egiten dute Debagoieneko ELA metaleko arduradunek. Lotsagarria iruditzen zaigu Bergarako Aceralia enpresan ELAko arduradunek duten jarrera.

Orain arte egindakoak gutxi izan badira, hau da enpresaren zuzendaritzarekin bat egin eta zuzendaritzaren politika lagundu eta bultzatu, orain LABeko delegatu baten eguneroko lana oztopatzea erabaki dute Aceraliako zuzendaritzarekin bat eginez ez diotelako lagatzen Osasun Laboraleko Batzordean parte hartzen. Erabaki hori larria izanik ere, gogoratu behar da Aceralian duela urtebete lan istripuagatik hildako bat izan zela. Guztion lana beharrezkoa da Aceraliako langileen segurtasunaren alde lan egiteko.

Gainera, LABeko delegatuari Lan Osasun Komitetik bidaltzeko, ELAko arduradunek jarritako arrazoiak, Antzuolako ELAY Enpresa Taldean bi ELAko delegatuen baldintzak berberak dira, eta LABen aldetik ez daukagu ELAko delegatu horien lana oztopatzeko asmorik, gure asmoa ez baita sindikatuen arteko gerla batean sartzea, gure helburua Debagoieneko metalgintzako langileen alde lan egitea da, batez ere lan segurtasun baldintza egokiak lortzeko guztion lana beharrezkoa denean.

Ondorioz, eskatzen diegu ELAko Debagoieneko metalgintzako arduradunei Acelarian daukaten jarrera errepresiboa alde batera lagatzea eta ondoan daukaten enpresetara begiratzea eta konturatuko dira sindikatuen arteko elkarlanetik eta ez bata bestearen aurkako jarrerengatik emaitza hobeak lortuko ditugula langileriaren egoera hobetzeko.

LAB-EKO HERRI BILTZARRA
Bergara

Lapurrak (eta III)

Bukatutzat ematen nuen Ander Rodriguez (Ezker Batuko zinegotzia Arrasaten) eta biok izandako ika-mika ezker abertzaleari lapurtutako zinegotziak direla-eta agertutako pegatinei buruz. Baina, inondik inora, espero ez nuena gertatu ostean, lerro hauek idaztera ia behartuta aurkitzen naiz. Agian ez duzue gogoratuko baina 2004ko urriaren 15eko GOIENKARIA hartzen baduzue, bertan Anderrek beste gauza askoren artean zera dio Lapurrak zioen pegatinari buruz:

"Patuaren zoria izango da, batzuetan era makabroan jotzen gaituena, baina nire begien aurrean pegatina bat ikusi nuen. Organizazio kide Jose Antonio Bazen erretratua zegoen bertan, eta beheko aldean berba bat: lapurrak! (...). Beronen diseinua negargarria zela (...). Oso ohituta nago era guztietako ergelkeriak entzuten, denboraren poderioz, egia aldaezin bihurtzen diren ergelkeriak (...). Kontu honek ez luke izan behar garrantzia handiagorik, ez balitz egileen zitalkeria moralagatik (...). Estrategia zikin horrek ez du zikinduko Jose Antonio Bazen zintzotasun (...). Beste barik, gaiaren muinari eutsiko diot: lapurrak! Epigrafe panfletario imaginatiboa. Orain arte ez dut landu gai hori, baina aspertuta nago horrenbesteko zinismo eta fariseismoz (...). Ahalegintzen dira eraso egiten euren lege kanporatzeari oposizio argia azaltzen dutenei (...). Eta bukatzeko perla bat:

"Eta etorkizunean, seriotasun handiz baloratuko dut nire jarrera kanpaina zikin horiek sustatzen dituzten pertsona eta taldeekin".

Ba, bueno, atzo arratsaldean Eskoriatzarantz gindoazela bertako autobus paradan zegoen EHAK-ren kartel batean Lapurrak zioen laranja koloreko orri fotokopiatu bat kolaz itsatsita ikusi nuen. Harrituta geratu nintzela esan beharrik ez dut zeren eta, zeren lapurrak ote dira EHAK-ekoak? Baina benetako harridura eta sorpresa handik metro gutxitara udaletxeko plazan Ezker Batuko Ander Rodriguez eta Merino Eskoriatzako zinegotzi (hau bai lapurra) ikusi nituenean beste alderdikide batekin (hau erratz eta kartelak itsasteko kola baldearekin) kanpaina egiten ari zela. Modu onean beraiengana jo genuen eta Ander eta Merinok modu onean hartu gintuzten. Lapurrak zioen fotokopiei buruz galdetzean, hauek ezer ez zekitela esan ziguten eta metro gutxi batzuetatik fotokopia oraindik kola tantaka botatzen zituela erakutsi genienean, Anderren erantzuna bera fotokopia horiek jartzearen aurka zegoela esan zigun. Tontotzat hartu al gaituzue? Nola liteke Eskoriatzako plazan bost pertsonaren artean egiten ari zineten kanpaina batean lankideak zertan ari diren ez dakizula esatea eta gero aurka zaudela esatea? Nola liteke lankidea kanpotarra dela esatea (ardura berari pasa nahian) eta kasualitatez zuk hain ongi ezagutzen duzun eta bizi izan duzun "epigrafe panfletario imaginatiboa" erabiltzea? Ez al da izango beste behin, legez kanporaketez baliatuz, zenbait eserleku gehiago lapurtzeko asmoa zenutela, eta orain EHAK agertzean, hauei lapurrak deitzea pastel zati gabe geratuko zaretelako?

Portzierto, handik ordu eta erdira Arrasaten beste bat aurkitu genuen Okorotegiko paretan itsatsita eta kasualitatez zuek Seberren zeundeten kanpaina egiten.

Bukatzeko, irakurleari lehenago aipatu dudan Anderren gutuneko azken perla berriz irakurtzeko eskatuko nioke. Beste barik osasuna eta askatasuna.

AITOR ELORTONDO
Aramaio

Errespetua

Gure herrian, legeak, arauak, ez dira denontzako berdinak. Guk, Gazte Asanbladako gazteok, ez dugu sekula ezer egiten, ez dugu errespeturik, ez dugu ganorarik, ez gara ezer.

Horren aurrean, guk badugu zer esana. "Ez dugu ezer egiten" dioenari galdera bat: nork egin du zerbait Aramaion orain dela gutxi arte? Gutxi batzuk bai, baina esan daiteke ez dugula eredurik edo tradiziorik izan, eta horregatik, zerotik hasi gara, baina poliki-poliki aurrera goaz. Aurreko urtean jaiak antolatu genituen eta aurten ere horretan gabiltza, proiektuak baditugu eta gauzatzeko bidean gaude, nahiz eta ezjakintasunak eta hasiberritasunak oraindik ez ditugun gainetik kendu.

Proiektu horietako bat, Bigarren eskuko liburu azoka da eta datorren astean izango da, larunbatean. Ekintza kulturala eta solidarioa da, Angolara bidaliko dugulako lortzen dugun dirua, baina ez dugu egin lausenguak jasotzeko edo herrian dugun itxura hobetzeko, gauzak egiteko gogoa dugun gazte talde bat elkartu gara, eta bide batez guretzako eta herriarentzako gauzak egiten ari garelako baizik.

Azoka horren inguruan, errespetua gutxi erakutsi digu partidu politiko batek, alegia EAJ/PNVk. Orain dela aste pare bat edo, azokaren berri emateko kartelak jarri genituen herrian, baina hurrengo egunean EAJ/PNVk hauteskundeetako kartelak jarri zituen eta guk jarritako azokari buruzko hiru kartel tapatu zituen. Horren aurrean, partidu politiko horren esku dagoenez, udaletxera jo genuen. Bertan, gertatu zena gaitzetsi zuten, baina esplikazioak edo barkamena ematerako orduan EAJko partaide batek bera ez zela EAJkoa esan zigun eta ez zigun esan norengana jo behar genuen. Baina behintzat, udaletxeari GOIENKARIA bakoitzarekin batera, fotokopiak atera, eta azokaren berri ematen zuten paperak banatzeko eskatu genion eta eskatutakoa bete zuen.

Oraindik, esplikazio gabe geundenez, eta bagenekienez herriko EAJko zein pertsonak jarri zituen kartel horiek, gutako batek beregana jo zuen. Horren aurrean kartelak tapatu zigun EAJko militante hori, barkamena eskatu beharrean, haserretu egin zen, zergatik gindoazen gu esplikazio eske esan, eta hurrengo kartelak jarri beharko balitu eta parean tokatu ezkero berriro tapatuko lituzkeela adierazi zuen inongo lotsarik gabe.

Gure harridura eta haserrea handia da, kartelak karteleretatik kanpo jartzea kritikatu eta kastigatu duen partidu batek, gazteok ez dugula ezer egiten behin eta berriro aurpegiratu digun partidu batek eta errespetua eskatu duen partidu batek, kartelak karteleretatik kanpo jarri ditu, gure ekintza baten kartelak tapatu ditu eta barkamena eskatu beharrean, harrotasun eta gehiegikeria nazkagarri batekin, ez digu inolako errespeturik erakutsi.

Eta hau dena zergatik? Gazteak bigarren mailako biztanleak al gara? Gure herrian hutsaren hurrengoa al gara? Ez, guk edozein Aramaioarrek dituen eskubideak ditugu eta horregatik errespetu bera merezi dugu eta hori aldarrikatzen dugu, gertatu dena salatuz. Errespetua elkarrekikoa izan behar da beti, errespetua eskatzen duen norbaitek, lehenengo adibidea eman dezala.

ARAMAIXO TROPIKALEKO
GAZTE ASANBLADA (ATGA)
Aramaio

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Inguruko karateka gazteek Zubikoa hartuko dute bihar

16:00etan hasiko dute Oñati Hiria Karate Txapelketa, kiroldegian

XABIER URTZELAI

Bihar arratsaldean, Eibarko, Bergarako eta Oñatiko karateka gazteak izango dira lehian, Oñatiko kiroldegian. Guztira 100 neska-mutiko inguru elkartuko dira Oñatin. Eibartik bakarrik, 50 lehiakide baino gehiago etorriko dira.

X.U.

Gaztetxoenak ibiliko dira katan, eta nagusitxoenak kumite modalitatean.

Kata eta kumite modalitateetan lehiatuko dira gazteak; Aloña Mendiko karate saileko Izaskun Plazaolak azaldu dizkigu modalitate horien arteko berezitasunak: "Katak karateko mugimenduak bideratzen dituzten ariketak dira. Epaileek kontuan izaten dute janzkera, gerrikoa bere lekuan ote dagoen, ariketa horiek ze posiziotan egin dituzten, oreka mantendu ote duten eta mugimendu bakoitza zuzen egin ote duten". Karateka ona izateko, oinarrizkoa da katak ondo menperatzea: "Kumitean, berriz, bi karateken arteko trebetasuna neurtzen da. Borroka moduko hori, baina, arau batzuk errespetatuz egiten da. Kolpeen bidez puntuak markatzen dira, baina ez da indarrez jotzen. Eta, ezin daiteke hainbat lekutan jo; aurpegian, adibidez".

Kata modalitatean izango dira aurre-benjamin, benjamin, alebin eta infantilak. Eta, mutilek eta neskek bananduta egingo dituzte ariketak; ez dira kata mistoak izango. Kumitean nagusitxoenek neurtuko dute trebetasuna, infantil mailakoek. Horietako asko Euskadiko Txapelketan egon berri dira.

Kirolabur

BOLOAK/ELGETAN, HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA

Bihar, zapatua, egingo dute Elgetan Hiru Txirlo Bolo Txapelketa. Horrenbesteko tradizioa duen txapelketak 36 urte egingo ditu aurten. 16:00etan hasiko dute txapelketa, bolo tokian. Lehenengo bost sailkatuak diruz sarituko dituzte, eta seigarrenak ere izango du saria, antolatzaileek ez dute ezer argitu, sorpresa izango da.

PILOTA/ELGETAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

Asteburuan gura beste pilota izango da Elgetan eta Aramaion. Gaur, egubakoitza, 20:30ean hasiko dira partiduak. Bihar, 16:30ean hasita Elgetan eta Aramaion izango dira kanporaketa gehiago. Elgetan, baina, gauean ere ez dute atseden hartuko, 21:30ean partidu gehiago jokatuko dituzte, eta baita domekan ere, 10:45ean hasita.

PILOTA/ESKUZ BANAKO PARTIDUA BERGARAN

Domeka arratsaldean pilota jaialdia egingo dute Bergaran (17:00etan). Eskuz Banako Txapelketaren barruan, Lasa III.a eta Olaizola I.a izango dira nor baino nor gehiago. Horrekin batera, jaialdia osatzeko Martinez de Irujok eta Eulatek osatzen duten bikoteak Titin III.aren eta Goñi III.aren kontra neurtuko dituzte indarrak.

ESKUBALOIA/DENBORALDIA ONDO AMAITU GURAN

Oñatiko Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeak bihar, zapatua, jokatuko du azkeneko jardunaldia, Toledoren kontra (Zubikoan, 19:00etan). Denboraldian zehar Oñatiko taldea animatzen ibili diren jarraitzaileei eskerrak emateko asmoz kantxaratuko dira oñatiarrak; horretarako, Toledo mendean hartzea da egin dezaketen onena.

FUTBOLA/MONDRA BAKARRIK EGON DAITEKE LASAI

Mondrak Pasaiaren bisita izango du bihar (16:30ean), baina ordubete geroago Bergaran jokatuko duten norgehiagokan egongo da benetako emozioa. Bergarak hil ala biziko norgehiagoka jokatuko du sailkapenean ondoan dagoen Anaitasunaren kontra (17:30ean). Beti Gazte eta Aretxabaleta ere ez daude opariak egiteko moduan (Domekan, 17:00etan, Lesakan). Eta, Mutrikuk Aloña Mendik baino hiru puntu gehiago baino ez ditu (Zapatuan, 17:00etan, Mutrikun).

Eskola kirolaren garrantzia

Jolasa, kirola, heziketa, trebetasuna eta bizitza kalitatea hobea eskaintzen dituelako

Kirol hastapenaren eredua da eskola kirola, eta gaztetxoaren garapen integrala da bere helburua.

Ekintza asko sartzen ditu zakuan eskola kirolak, eta horrek badu bere garrantzia. Batetik, ikasleak bereganatuko ditu bere garapenerako aberasgarriak izango diren trebetasun motorrak eta bere gaitasunak; horrez gain, etorkizuneko kirol jarduera guztietan parte hartzeko gai izango da.

Eskola kirola ez da kirol hutsa, jolasa eta heziketa ere bada. Horregatik, eskolako helburuekin uztartu egiten da eskola kirola.

Eskola kirola etorkizuneko kirol jardueraren abiapuntua ere bada. Izan ere, kirol kultura sortuko dio gaztetxoari eta bizitza kalitatea hobetzen lagunduko dio horrek. Gainera, etorkizunean goi kirolean jardun gura duenarendako ere laguntza izugarria izango da.

	UDALA	Ikastetxeak	Eskola Kirola						DIRU GASTUA	DIRU LAGUNTZAK
			UME KOPURUAK.					Ikasleak ikasturteko		Udala eta Aldundiak elkarrekin
			AURRE	BENJ	ALEB	INF	OROHAR			
Debagoien behea	Bergara	4	151	111	164	119	545	26,00	36.421	28.000
	Antzuola	1	0	20	27	0	47	-		
	Elgeta	1	0	6	7	0	13	-		
	GUZTIRA	6	151	137	198	119	605			
Leitz Eskola Kirola	Arrasate	6	172	158	187	124	641	59,00	203.000	105.000
	Aretxabaleta	1	33	46	65	30	174			
	Aramaio	1	14	15	10	0	39			
	Eskoriatza	2	35	33	41	37	146			
	GUZTIRA	10	254	252	303	191	1000			
Oñati	Oñati	0	68	145	179	137	529		0	0
	GUZTIRA	0	68	145	179	137	529			
GUZTIRA		16	473	534	680	2134	2134		239.421 _	133.000 _

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola 943 76 62 46
Aretxabaleta 943 71 26 28
Arrasate 943 77 16 77
Bergara 943 77 91 67
Elgeta 943 76 80 22
Eskoriatza 943 71 53 28
Oñati 943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

www.**suministrosugarte**.com

UGARTE
Industria horniduran nagusi

gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com **2005EKO APIRILAREN 15etik 21arte**

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK

"FRAGIL" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"IN GOOD COMPANY" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"LA SEÑAL 2"
6,45
"MALEVOLENCE" ESTRENALDIA
5-9-10,45
"ENAMÓRATE" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"BELLEZA PROHIBIDA"
5,30
"MILLION DOLLAR"
8-10,30
"ROBOTS"
5,30
"BE COOL"
8-10,30
"REINAS"
5,30-8-10,30

zinema

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK

"LOS EDUCADORES" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"LA DAMA DE HONOR"
5-10,30
"HIERRO 3"
7,45
"ALGO EN COMUN"
5-10,30
"TIERRA DE ABUNDANCIA"
7,45
"BODAS Y PREJUICIOS" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"MI QUERIDO FRANKIE" ESTRENALDIA
5,30-8-10,30
"SAMARITAN GIRLS" ESTRENALDIA
5,30-8-10,30
"UN DIA SIN FIN" ESTRENALDIA
5,30-8-10,30

zinema

CINES GURIDI ZINEMAK (2005 APIRILAK 18 - 22)

ZINEMA ETA ELKARTASUN EMANALDIAK:
HERRI INDIGENAK ETA INDIGENEK EGINDAKO
FIKZIO ETA DOKUMENTALAK

ASTELEHENA 18:
17,30-22,30
LA MANIPULACIÓN GENÉTICA (58´), WICHI (24´), UN DIA EN LA ALDEA (40´)
20,00
GUILLERMO MONTEFORTE-K AURKEZTEN DU (MEXIKO): CON TODA LA FUERZA DEL ESTADO (14´), UNIDOS VENCEREMOS (12,30´), SEMBRANDO FUTURO (15´)

ASTEARTEA 19:
17,30-22,30
LA TIERRA ES NUESTRA ESPERANZA, LA RESISTENCIA AL PLAN PUEBLA PANAMA (29´), EXILIADOS DEL NEOLIBERALISMO(46´), PALABRAS CONTRA LA INJUSTICIA (34´)
20,00
ANA VILACAMA-k AURKEZTEN DU (BOLIBIA): VENCIENDO EL MIEDO (55´)

ASTEAZKENA 20:
17,30-22,30
JOHNMY GREYEYES (76´), LA VIDA DE LA MUJER EN RESISTENCIA 19´)
20,00
JUAN JOSE GARCIA-K AURKEZTEN DU (MEXIKO): XULUM CHON / TEJEDORAS EN LOS ALTOS EN RESISTENCIA (15,46´), LA LUCHA DEL AGUA (14,35´), PRODE EN VOZ DE LOS CAMPESINOS (18´)

OSTEGUNA 21:
17,30-22,30
UNA MUERTE EN SION (25´), COCANCKEJ SUTIMPY / EN NOMBRE DE NUESTRA COCA (55´), FUSIL METRALLA EL PUEBLO NO SE CALLA (17´)
20,00
JULIANA JULAJUJ HON-EK AURKEZTEN DU (GUATEMALA): ACUERDOS DE PAZ EN SOLOLA (22,35´)

OSTIRALA 22:
17,30-20,00-22,30
WHALE RIVER (105´)

Dokumentalak

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

Apirilak 15-22

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ARETXABALETA

► **Eskualdeko kondairak** kontatuko ditu Imanol Biain oñatiarrak eguenean, hilak 21, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi elkarteak antolatzen du.

ARRASATE

► **Emakumeen Munduko Martxa** aurkeztuko du Alizia Otxoa Euskal Herriko Mundu Martxako Plataformako kideak eguaztenean, hilak 20, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

BERGARA

► **Psikosia hasieran antzeman eta tratatzearen** gaineko hitzaldia egingo du Oskar Vallina psikologoak eguenean, hilak 21, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan, Agifes elkartearen eskutik.

ESKORIATZA

► **Gaixoen oliadura** egingo dute hilaren 24an, 12:00etako mezan, eta hori hartu gura dutenek izena eman dezakete sakristian, astegunetan 19:30ean eta domekan 12:45ean. Gaixoei eta 65 urtetik gorakoei egiten diete bereziki dei.

► ***Farmaziaren historia 1.000 botika-tresnaren bitartez*** delako hitzaldia egingo dute astelehenean, hilak 18, Ibarraundin, 18:30ean.

► ***Ebanjelioari buruz hitz egitea ez dago modan*** delako berbaldia egingo du Florencio Torrellidok eguaztenean, hilak 20, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI

► **Odol ateratzeak** egingo dituzte gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00etan.

► ***Lagunen garrantzia seme-alaben garapenean*** gaiaren inguruko lansaioak antolatu ditu Guraso Eskolak. Lehen saioa hilaren 18an, astelehenean, izango da. Argibideak, Udal Prebentzio Zerbitzuan (943 03 77 00 telefonoa, Ainhoa).

► **Gazteen aisialdiaren** gaineko hitzaldia egingo du Eraberri taldeak hilaren 19an, martitzena, Elkar Heziren Santa Marinako mediatekan, 19:00etan. 12-18 urte bitarteko ume eta gaztetxoen gurasoei dago zuzenduta.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Elisabet Eguren** margolari eibartarraren lanen erakusketa egongo da hilaren 24ra bitartean Iturriotz kaleko Harresi aretoan, honako ordutegian: astegunetan 18:00-20:00 eta zapatu eta jaiegunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

► **Eba Ramirê** argazkilari andaluziarraren lanen erakusketa dago kultura etxean. Bisita ordutegia honakoa duzue: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

► **Jone Telleriaren** margolan erakusketa dago Nahikari tabernan apiril osoan. 13 margolanek eta ikus-kutxa batek osatzen dute.

ELGETA

► **Zuriñe Gredillak** egurrez egindako lanen erakusketa zabalduko dute bihar, zapatua, Espaloia antzokian. Hilaren 23ra bitartean izango da zabalik.

ESKORIATZA

► **Tren zaharraren gaineko** argazki erakusketa egongo da Inkernu tabernan hilaren 23ra bitartean. Aitzorrotz elkarteak antolatu du.

► **Antzinako farmaziaren** gaineko erakusketa egongo da Ibarraundi museoan hilaren 24ra bitartean. Ordutegia da 16:00-19:00.

OÑATI

► **Sahararen** inguruko argazki erakusketa egongo da gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 22ra bitartean kultura etxean. Gai horren gaineko hitzaldia egongo da Errekalde Herri Eskolan hilaren 21ean, eguena, 10:00etan eta 11:30ean.

MUSIKA

ARRASATE

► **I. Apirileko Musikaldiaren** barne, Cristina Sánchez arpa-jolearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, parrokian, 20:30ean.

► **Karidadeko Benta eta Matxura** taldeek gaur, egubakoitza, joko dute, 3.60 aretoan, 23:00etan. Karidadeko Bentak *Amore, amore* diskoa aurkeztuko du. Sarrera 9 euro da. Bihar, zapatua, Ene! eta Balza disko jartzaileek girotuko dute gaua 03:00etan hasita.

BERGARA

► **The Beat** taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **RDT, Karkaba eta Ultima Neurona** taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Asstrio** Bartzelonako musika taldeak *As soon as possible* disko berria aurkeztuko du bihar, zapatua, Galway's pub irlandarrean, 22:30ean, ostatuaren urteurrena ospatzeko. Groove eta funk-jazz estiloko musika egiten dute. Euren abestiez gain, Beatles, Stevie Wonder edo Duke Ellingtonen lanak joko dituzte.

► **Minimal night** musika jaialdia girotuko dute Haitz eta Koldo disko jartzaileek bihar, zapatua, Go Jam aretoan, 01:00etan.

► **Musika Astea** antolatu du Bergarako Musika Eskolak hilaren 18tik 25era bitartean. Egunero, hainbat emanaldi egingo dituzte musika eskolan, Zabalotegin, elizatan edo kalean. Hona hemen emanaldien hasiera orduak, musika eskolan: hilaren 18an, 17:30ean; martitzenean, 14:45ean; eguaztenean, 16:45ean; eguenean, 17:30ean.

ESKORIATZA

► **San Asensio bandak** kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, San Pedro elizan, 20:00etan.

► **Paco Ibáñez** kantautore valentziarrak emanaldia egingo du bihar, zapatua, kiroldegian, 22:30ean. Sarrera da 15 euro.

OÑATI

► **Banda Bardó** talde italiarrak kontzertua egingo du bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

BURUZ BURUKO TXAPELKETA:

Lasa III // Olaizola I
•
Mtnez. de Irujo-Eulate // Titin III-Goñi III

aspepelota.com

• **Eguna:** igandea, apirilaren 17a.
• **Ordua:** 17.00etan.

► IKUSKIZUNAK

MUSIKA ETA ANTZERKIA

Bartzelonako Gracia auzoko Gracienc abesbatzak eta Stog antzerki taldeak emanaldi bana egingo dute bihar, zapatua, Oñatin. Oñati Abesbatzak gonbidatuta datoz. Gracienc abesbatzak mendeurrena izan zuen iaz; Stog taldea, bestetik, orain hamar urte izan zen lehenengoz Oñatin. Bi taldeak Graciako auzotarrek osatzen dute, eta oso maila onekoak dira. Orfeoiak Beethoven, Haendel, Haydn eta beste konposatzaile klasiko batzuen eta Kataluniako egileen piezak abesten ditu, batik bat, eta horiek eskainiko ditu bihar. Stog taldeak, bestetik, Federico Garcia Lorcaren komedia bat antzeztuko du: *El amor de Don Perlimplín con Belisa en su jardín*.

Eguna: hilak 16, zapatua.
Lekua eta ordua: Abesbatza, Agustindarrenean, 20:00; antzerkia, Santa Anan, 22:30.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Gaztetxearen 14. urteurrenean,** honako ekintzak izango dira: gaur, egubakoitza, Debako gaztetxearen inguruko hitzaldia; bihar, zapatua, futbitoa, 15:30ean, komando autonomoen gaineko hitzaldia, 17:30ean, eta Ardi Galduak eta beste bi talderen kontzertua, 22:00etan; eta etzi, domeka, *Ni Mohamed* antzerki emanaldia 18:00etan.

BERGARA

► **Txapa Irratiaren urteurreneko** bideoa emango dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztetxean.

OÑATI

► **Errekalde Herri Eskolak** 25. urteurreneko ekitaldiak egingo ditu hilaren 18tik 22ra bitartean.

► **Txantxiku Ikastolaren Eguna** ospatuko dute. Hilaren 22an, 23an eta 28an, ospakizunak izango dira.

IKUSKIZUNAK

ARRASATE

► ***Itzalak*** irakurketa eta musika ikuskizuna egingo dute Jabier Muguruza, Roberto Yaben eta Iban Zalduak eguenean, hilak 21, Monterronen, 19:30ean.

ARETXABALETA

► ***Arrakalak*** antzerki eta poesia ikuskizuna egingo du Bihotz Bakartien Klubak gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 21:30ean.

ANTZERKIA

ELGETA

► ***Boom*** antzezlana egingo du Chapertons taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

IKASTAROAK

ELGETA

► **Gazteendako skate ikastaroa** antolatu du Goibeko kultura elkarteak. Bihar, zapatua, hasiko da, 17:30ean. Izenematea zabalik dago.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Luna de Avellaneda
Egubakoitza: 22:30.

El retorno de Jafar
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Descubriendo Nunca Jamás
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Napoleon Dynamite
Domeka: 17:00.

Caminar sobre las aguas
Eguena: 20:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Resistencia
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Los chicos del coro
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

María, llena eres de gracia
Eguena, zinekluba: 20:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

The ring 2
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Habana blues
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

The ring 2
18:45.

Be cool
20:00, 22:30.

Reinas
17:30, 20:00, 22:30.

Robots
17:30.

Frágil
17:00, 19:45, 22:30.

In good company
17:00, 19:45, 22:30.

Million dollar baby
20:00, 22:30.

Enamórate
17:00, 19:45, 22:30.

Malevolence
17:00, 21:00, 22:45.

Belleza prohibida
17:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

The ring 2
17:30, 20:15, 22:45.

Un canguro superduro
17:30, 20:15, 22:45.

Frágil
17:30, 20:15, 22:45.

El silencio del agua (J.B.A.)
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Un toque rosa
17:15, 20:00, 22:30.

Robots
17:15.

Million dollar baby
17:15, 20:00, 22:30.

Hitch
17:20, 19:50, 22:35.

La casa de las dagas voladoras
17:15, 20:00, 22:30.

El penalti más largo del mundo
17:30, 20:15, 22:45.
Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Los edukadores
17:00, 19:45, 22:30.

Bodas y prejuicios
17:00, 19:45, 22:30.

La dama de honor
17:00, 22:30.

Mi querido Frankie
17:30, 20:00, 22:30.

Hierro 3
19:45.

Samaritan girl
17:30, 20.00, 22:30.

Un día sin fin
17:30, 20.00, 22:30.

Tierra de abundancia
19:45.

Algo en común
17:00, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Hitch
16:45, 19:30.

Robots
16:15, 18:15, 20:15.

Asalto al distrito 13
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Miss Agente Especial 2
16:15, 19:30.

El escondite
22:30, 00:45.

Blade trinity
22:30, 01:00.

Malevolence
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Los chicos del coro
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Un canguro superduro
16:15, 18:15, 20:15, 22:30, 00:45.

Be cool
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

Constantine
22:15, 00:45.

Enamórate
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Hitch
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Reinas
12:15, 16:20, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

La intérprete
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Los padres de él
19:50, 22:15, 00:35.

Million dollar baby
12:15, 16:35, 19:15, 21:50, 00:25.

Be cool
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Team America
12:15, 16:05, 18:05.

Heffalump
12:15, 16:40, 18:10.

El escondite
20:35, 22:35, 00:35.

Bob esponja
12:15, 16:10, 18:00.

Un canguro superduro
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00

In good company
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Saw
12:15, 16:30, 18:30, 20:35, 22:40, 00:45.

Miss Agente Especial 2
12:15, 16:15, 18:25.

Hotel Rwanda
19:45, 22:10, 00:40.

Robots
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

The ring 2
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Blade trinity
20:05, 22:25, 00:45.
Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
12:15, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

Blade trinity
19:45, 22:15, 00:45.

Robots
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

El penalti más largo del mundo
12:20, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Descubriendo Nunca Jamás
12:15, 17:30.

Un canguro superduro
12:15, 16:10, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

Million dollar baby
12:10, 16:25, 19:30, 22:10, 01:00.

In good company
12:10, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.

Hitch
12:10, 17:15.

Be cool
12:10, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

El escondite
22:00, 00:30.

The ring 2
12:10, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.

Heffalump
12:20, 16:20, 18:20.

Saw
20:00, 22:10, 00:30.

Habana blues
20:00, 22:20, 01:00.

Reinas
12:20, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Descubriendo Nunca Jamás: ●●●● / ***La casa de las dagas voladoras:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

BELLEZA PROHIBIDA

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Richard Eyre.
AKTOREAK: Billy Cudrup, Claire Danes.

Antzerki munduan girotutako istorioek dramatikoki joko ederra ematen dute: aktoreen egoak eta euren artean sortzen diren lehiak, errealitatearen eta irudikapenaren arteko nahasketa (askotan ez da erraza bereiztea non bukatzen den pertsonaia eta non hasten den pertsona), esate baterako. Horrela, istorioa aberasten duen anbiguotasuna sortzen da. Osagai horiek *Belleza Prohibida*-n ere ematen dira. Filma XVII. mendeko Ingalaterran kokatzen da. Garai hartan emakumeek ezin zuten antzerkian aktore lanak egin eta gizonak ziren emakumeen pertsonaiak egiten zituztenak. Hori dela eta, antzerki-izar izatea lortu zuen aktore mota bat sortu zen: emakumeen keinuen imitazioa eta portaeren isla larregizkoa eginez, nahasketaz eginiko aktore bat sortzen da, bere identitatearekin arazoak dituen pertsona; gizonen eta emakumeen artean eta errealitatearen eta fantasiaren artean mugitzen den pertsona, hain zuzen ere.

Ned Kynaston da pertsonaia nagusia. Aktore oso famatua da, baina berriz emakumeak antzerkian lan egitera bueltatzen direnean, emakumeen rolak egiten bereiztu ziren aktoreek debekatuta edukiko dute lan horiekin jarraitzea.

Istorioaren hasieran, aktorearen neskameak modu ezkutuan antzerkian lan egiten zuen, eta egun batetik bestera, gauzak aldatuko dira, neskamea aktore bihurtuko da eta aktore ospetsua antzerki-zuloetan lan egin beharrean izango da. Eta bien artean amodio-gorroto harremanak sortuko dira. Biak bere lekua aurkitu nahian daude. Horiek dira filmaren momentu ederrenak.

